

kultura

joan mari
torrealdei.
jakin, 50 urte

QEU

2,40 €

2006ko abendua

168

historia

agurain

gaia

parral tabernak 11

musika

neubat

bidaia

singapour-gasteiz trenet



juanma bajo ulloa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Deskontu eta abantaila
guztiak **elkar txartelarekin**




GASTEIZ

- San Prudencio 7 - 945 14 45 01
- Apraiztarak 1- Campus - 945 14 16 70



www.elkar.com



50 Jakin, GURE
URTE KULTURAREN
ALDIZKARIA


Jakin

haizea dakiten orriak

Harpidetatu zaitez eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 218092
Idatzi: jakin@jakingunea.com
Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

zeregin	4
abenduko agenda	
iritzia	7
...beste xenofobia	
kaletik / zutabea	8
aht / iruña-veleia	
geupertsonaia	9
joan mari torrealдай. jakin, 50 urte	
euskaltasunean. gasteiz	13
mikel hernandez	
geugaia	14
parral taberna, 11 urte	
lauhitzetan	17
kunka / korrika / ahotsak...	
artetxokoa	19
juanma bajo ulloa zinegilea	
artetxokoa	22
neubat. 'stereosaurus'	
artetxokoa	24
s.a.m.a, ikus-entzunezkoen elkartea	
batbitan	26
'agurain, 750 urte baino gehiago'. unai gartzia	
proposamenak	
haur&gazte literatura	28
cd-a&liburua&zinea / txabi arnal	
umorea	29
iñigo sarasola	
bidaia	30
singapour-gasteiz trenez	
errezeta	32
taloa	
historia&euskara	33
elizmendi ermita. kike fdz de pinedo	
arababixotzian	34
cristina fernandez	
historiazutabea	34
erlantz urtasun	



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua [1992] | Geu aldizkariak taldeak egiten, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gastetz | **tfnoa, eta faxa:** 945 22 51 53 | **e-mail:** geugastez@gn.es | geu.geugastez.com | www.geugastez.com | **zuzendaria:** estibux beñas glz. de zaratze | **aldizkariak batzordea:** david alvez, edurne begiristain, josune veleaz de mendizabal, edorta santza eta estibux beñas | **kazetaria:** josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain, maite lekue, saioa fdz de arangiz, alinghoa ariagata eta naroa cuesta | **azuleko argazkia:** edorta santz | **argazkiak:** edorta santz | **bestelako irazleak-bilaketa:** estibux beñas glz. de zaratze, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estibux beñas glz. de zaratze | **luzumera:** edurne begiristain, estibux beñas, aztiri | **maketa:** dalziel | **inprenta:** hilgo sarasola | **kolaboratzaileak** ale honetan: kike fdz. de pinedo, jabi otsoa de alda, txabi arnal, erlantz urtasun eta cristina fernandez | **publizitatea:** geu aldizkaria | **sustapen-harpidetza saila:** geu aldizkaria | **harpidetza-publizitate laguntzailea:** edurne begiristain | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, 0ñarti) | **lg:** V-582/92 | **issn:** 1133-0988 | Franko Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper bezirkatuaz egina da | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako erantzukizunik.

Laguntzaileak:



■ DURANGOKO AZOKAren 41. edizioa

abenduak 6-10

1965. urtean antolatu zuen gerediaga elkarteak I. durangoko euskal liburu eta disko azoka. bidaiak gaitzat hartuta, azoka honetarako egitarau zabala pres-tatu du gerediaga elkarteak. azokako antolatzaileek prestatu duten egitarauaz gain, azokan izango diren argitaletxeek eska-tuta egingo diren dvd, liburu eta diskoen aurkezpenen berri ere baduzu webgunearen agendan. eta horrez gain, durangora joanda, azokaz kanpo antolatu diren beste ekintza batzuk ere aurkituko dituzue.



■ PARRAL TABERNA-jantoki begetarianoaren 11. urteurrena

azaroak 28, 30 / abenduak 4-5

>azaroak 28, asteartea, 20:30ean: musika saioa. EORANN (pop, post-rock, noise), bilbotik geu elkarteak antolatua
>azaroak 30, osteguna, 21:30ean: bertso saioa. UNAI ITURRIAGA, JON MAIA, IGOR ELORTZA gai-jartzailea: josu goikoetxea (gainontzeko egunetan: gorka aginagalde, zirkoa, luntxa eta dj-ak)

PARRAL



■ GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

abenduak 17, igandea

>nafarroako ARBURUAra (1030m) irteera irteera: loaina plazatik ordua: 9:00etan arduraduna: kike (945140158)

KULTUR ERROTA


abenduak 19, asteartea

>ALL JAZZ ERA talde bizkaitarraren funk doi-nuek hartuko dute parral taberna lekua: parral taberna ordua: 20:30ean

IRAKURLE KLUBA

abenduak 21, osteguna

>juan luis zabalaren 'GALDU ARTE' (susa 1996) eleberriaren inguruan solasaldia lekua: hikaateneo kultur gunea (pintore kalea, 13) ordua: 20:00etan dinamizatzailea: iban zaldia >>urtarrilean jorratuko den liburua: irene nemirovsky, DANTZALDIA, txalaparta 2006



■ GAUEKOAK

www.gauekoak.es

MALATU taldearen jazz saioa

abenduak 2, 21.00etan, aldabe gizarte etxeko antzokian

sarrera: 6/3/doan

BETAGARRI taldearen

kontzertua

abenduak 16, 21.00etan, azkena aretoan

sarrera: 12 euro / 6 euro 30

urteik beherakoentzat

eta TAILERRAK



■ BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

ARTIUM / MONTEHERMOSO / ARMENTIAKO BASILIKA / IRUÑA-VELEIA / ANDRA MARI KATEDRALA / TOUR AGURAIN

■ KULTUR IKASTAROKAK

gasteizko udalaren kultura sailaren eskutik

ARABAKO EUSKARA GAUR ETA ATZO'

pilarreko gizarte etxean

asteazkenetan, 20:00etatik 21:30era

12 saio: urtarrilak 10, 17, 24 eta 31 / otsailak 7, 14, 21 eta 28 / martxoak 7, 14, 21 eta 28

matrikula: 32,04 euro / matrikula murriztua: 16,02 euro izena emateko epea zabalik dago, edozein gizarte etxetan, ikastaroa hasi bitartean (leku kopuru mugatua)

■ KONTZERTUAK

>KARIDADEKO BENTA + PATA NEGRA

durango. abenduak 7, osteguna

plateruena kafe antzokia. 22:30

san quirico hirugarren diskoa aurkezten

>TXUMA MURUGARREN, PETTI, RAFA RUEDA durango

abenduak 9, larunbata

plateruena kafe antzokia. 22:30

hauxe diskoa aurkezten

www.hotsak.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

■ MARRAZKETA & OLIO-PINTURA IKASTAROA EUSKARAZ

iparralde g.e (amaia zentroan)

ordutegia: astelehen-asteazkenak, 19:30-21:00 (aldi berean, aukera dago gela beste ordutan ere erabiltzeko)

izena-ematea: abenduan zehar, iparralde g.e-an (945161750)

egun 4-5 lagunek eman dute izena bakarrik; talde handiagoa lortzen ez bada ekintza bertan behera utziko dute

■ TAILERRA: ETXEA EROSTEA

abendua 11 (astelehena), 10:00-12:00 (plaza koopuru mugatua: 12)

>etxebizitza erostean erabakia, aurretiko kontratuak, salerosketa-kontratuak, etxebizitzaren finantzaketa, kenkari fiskalak, eraikuntza akatsak, dirulaguntzak...

antolat.: kontsumo gelak (adriano VI.a, 20-1.-gasteiz / 945016600 /

a-kontsumo.gelak@ej-gv.es

■ EUSKHARAN elkarteen ekintzak

amaia zentroa, isunzatarren kalea, 10 / 945288275

■ GORA TABERNA (gasteizko alde zaharra)

konzertuak

■ ASPARRENGO EUSKARAREN ASTEA

azaroak 27-29 / abenduak 1-3

euskal jolasak, kukubiltxo...

■ ZALDUONDOKO EUSKARAREN ASTEA

azaroak 30 / abenduak 3

alberto iñurrategi, kantaldia...

■ AMURRIO ANTZOKIA

www.amurrio.org

■ EUSKAL HERRIKO II. IKUS-ENTZUNEZKOEN RALLYA

abenduak 16

aiaraldean

www.topagunea.org/rallya

HAURRENTZAKO ANTZERKIA & IPUINAK

■ KATIUSKA. IPUIN-KONTALARIA EUSKARAZ

abenduak 16

larunbatetan familia osoa programa. 18:30ean, montehermoso kulturunean sarrerak: euro 1, aurreko larunbatetik salgai

■ 'HURBILDU ITZAZU IPUINETARA' programa

(4-7 urte arteko haurrentzako irakurtzera bultzatzeko programa) gasteizko kultur etxean

>ipuinak beste azentotan programa (ostiralak) abenduak 1

IÑAKI CARRETERO & UXUE ZAPATA (FLAUTA)

18:00etan. sarrera doan

>txikiak liburutegira: liburuekin jolastera programa (larunbatak)

aurretik astean zehar izena eman behar da (20 plaza gehie-nez)

abendua 2

'HONDARTZAKO GAZTELUAREN IPUINA' (JARDUERA: JOLASTU)

ignacio aldekoa kultur etxeko haur aretoan / 946181944 / ccuinfantil@alava.net

■ LIBURUTEGI BIZIDUNEN PROGRAMA

abenduan zehar

>literatur ikuskizunak, hitzaldi hezigarriak, ipuin kontalariak, lantegiak eta txotxongiloak gasteizko gizarte etxetako liburutegietan

>III. HAURRENTZAKO IPUIN LEHIAKETA

epea: abenduak 22

antolat.: gasteizko udal liburutegi publikoen sarea

www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas

■ bestelakoak

■ fantCORTADA

gasteizko XI. film laburren jaialdia

abenduaren 11-14

guri zinemetan. 2 saio: 20:00 / 22:30

11n: fant-cortada. lehiaketarako sail ofiziala (estatuko film labur fantastikoak)

12an: film laburrak alemanian (kurz & gut II. goethe institut)

13: nazioarteko film laburrak (zinebi 07)

14: freaky power gaua

www.neffestival.com



GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

GABONETAKO HAUR PROGRAMA

gasteizko udalaren kultura sailaren eskutik

■ gasteizko haur-ikuskizunen III. erakustaldia

mendizorrotzeko kiroldegian, 19:00etan

sarrerak: 3 euro / familiarentzeko deskontua (ikuskizun bererako 4 sarrera): 9 euro
>aldez aurretik: goiuri jauregian (aihotz plaza, z/g)
-abenduaren 16an: 9:00-20:00 (hurrenkera zenbakiak banatuko dira, 8:00etatik aurrera)
-abenduaren 18 -19an: 10:00-12:00 / 18:00-20:00
-telefono zenbaki honetan: 16 16 60, kreditu txartela baliatuz, ordutegi berean
>emanaldi egunean: mendizorrotzeko kiroldegiko leihatilan, 17:00-19:00
(8 sarrera, gehienez, pertsona eta ikuskizun bakoitzeko)

>GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO (PAILAZOAK)

abenduak 27 (asteazkena)

gari, montxo eta joselontxo pailazoak zirko artista bikainak dira: musikariak, mîmoak, malabaristak... barreak eta abenturak, ilusioa eta parte-hartzea eskainiko dizkigute

>KANPANOLUE

abenduak 29 (ostirala)

60. hamarkadako doinuak eta erritmoak dira nagusi haurrentzako berbera honetan, pertsonaia lotsagabe, musika, dantza eta jolasen bidez

>XURDIN KOBAZULOAN GALDURIK (jokoak, dantza, abestiak...)

urtarrilak 3 (asteazkena)

etor zaitez ipotxen munduko magia ezagutera. zu zeu abentura honetako protagonista bihurtuko zara, joko, dantza eta abestietan murgilduta

■ txotxongilo txoroak

txotxongilo ikuskizunak gizarte etxeetako antzoki & ekitaldi aretoetan, 18:00 h
prezioa: 2 euro (sarrerak emanaldiaren egunean salduko dira gizarte etxean bertan): adin egokia: 3 urtetik aurrera



>SOL Y TIERRA TALDEA: 'PRINTZESA ETA DRAGOIA'

abenduak 26 (asteartea), aldabe antzokian (aldabe g.e)

ausartzi printzesa bere kobazulora ez badoa, trikimailu dragoiak bakerri izeneko herrialdea hondatuko du

>AZIKA ELKARTEA: 'HERRIALDE URDINA'

abenduak 27 (asteazkena), ipar arriaga antzokian (arriagako g.e)

txotxongilo-maneiatzaileak kolore anitzeko kuboak aurkitzen ditu kutxa batean, eta bertan honako hauek ere: koki kaskagogorra, musika-lilia, untxi dantzaria, hartz txikia eta, azkenik, magoa, herrialde urdinera doan bidea ezagutzen duen bakarra

>ANTZEKIZUNA GINOL TALDEA: 'PINOTXO'

abenduak 28 (osteguna), ariznabarrako g.e.-ko ekitaldi aretoan

gepettok panpina bat egin du, hitz egiten eta ibiltzen dakien panpina bat. eskolarako bidean, hainbat abenturarekin egingo du topo

>TAN TAUN TALDEA: 'BATUTA'

abenduak 29 (ostirala), aranako g.e.-ko ekitaldi aretoan

geltoki bat, badator trena, badoa trena berri, maleta bat hor gelditzen da, bakarrik... maleta zabaldutik egin da: "batuta" agertu da, bere musika-notak, bere jolasak eta bere lagun "notatxo" lagun dituela

>PROISMO CERO TALDEA: 'BASTOA ITZULI, LOREAK IRABAZI'

abenduak 30 (larunbata), federico garcia lorca antzokian (lakuako g.e)

loredor printzesak eta lorontzi lorazainak elkar maite dute, baina errege bastoak bere alaba belaxkilo printzearekin ezkondu nahi du. nola amaituko da nahaste hau?

>KOLLINS KLOWN: 'GURE OILO MARIMOTROILO' ETA 'TXOKOLATEZKO ETXETXOA'

urtarrilak 4 (osteguna), beñat etxepare antzokian (iparralde g.e)

"martzelina oiloa" eta "hansel eta gretel" ipuinetan oinarritutako bi obra hauen bidez, laguntza ematearen abantailak ikasiko ditugu, bai eta beldurrari aurre egiten ere

■ eguberrietako III. parkea

DENETIKO JARDUERAK, hegoalde gizarte etxean

abenduak 23-urtarrilak 5 (abenduak 25 eta urtarrilak 1 salbu)

ordutegia: 11:00-14:00 / 16:00-21:00 (abenduak 24 eta 31 & urtarrilak 5 goizeko txanda bakarrik)

sarrera (gizarte etxearen kanpoko aldeko leihatilan): 2 euro txanda bakoitzeko (jarduera guztietarako balio du)

[bildutako diru kopurua aspanafoha-arabako haur onkohematologikoen gurasoen elkarteari emango zaio]

>HAURRENTZAKO IKUSKIZUNAK

elkartze aretoan, 12:30ean

abenduak 24: inkurinkan antzerki gogoia (klown-antzerkia)

abenduak 26: xalto pailazoa, "show berria prestatzen" (animazioa)

abenduak 27: 'toni la sal birusak erasoan' (aktore eta txotxongilo antzerkia)

abenduak 29: poco pico: 'el cumpleaños de poco' (animazioa euskaraz & gaztelaniaz)

abenduak 30: kixka taldea, 'txerriketan berriketan' (txotxongilo antzerkia)

urtarrilak 2: monda lironda, 'elefanteen jaia' (pailazoak)

urtarrilak 4: anton irusta, ipuin kontaketa eta marrazkiak

urtarrilak 5: ana, 'elezaharra' (ipuin kontaketa)

jesus ibañez de matauco antzokian, 18:00etan

abenduak 23: rosa maria martinez: 'rosa in storyland' (antzerkia euskaraz & ingelesez)

abenduak 28: peter roberts konpainia, 'marratxo' (antzerkia)

abenduak 29: elvi ventri-loc, sabel hitzuna euskaraz

abenduak 30: kutxo eta blasa (klown-antzerkia euskaraz eta gaztelaniaz)

urtarrilak 2: potxin eta patxin, 'indioen lurraldea' (pailazoak)

urtarrilak 4: zirika zirkus, 'zorionak' (klown-antzerkia)

[jabi otsoa de alda]

NAFAR-ESPAINIARRA ETA NAFAR-EUSKALDUNA: BESTE XENOFOBIA

Azken urteotan Nafarroako instituzioek euskararekiko izan duten jokabidearen helburua euskararen garapena geldiaraztea eta ahalik eta kalterik handiena egitea izan da argi eta garbi. Nire iritziz, ekintza horiek gure gizarteak interpretatu duena baino askoz ere larriagoak dira, ez baitira hizkuntz esparrura mugatzen, ez dira hizkuntza bati egindako eraso soilak, baizik eta etika sozialaren eremuan kokatu dira aspalditik, eta instituzioen ekintzak xenofobotzat jo daitezke, xenofobia kulturaltzat kasu honetan, hala, mailarik gaitzesgarriena hartuz.

Beste kultura batzuetako jendearen janzkerarekin, jateko ohiturekin edo hizkerarekin lotutako adierazpen gutxiesgarriak entzuten ditugunean, eta gainera une horretan beren kultura beste baten menpe egoteagatik, bigarren talde kultural horrek aurrekoaren eskubideak zapaltzen baditu, egoera hori xenofobotzat jotzen dugu. Gogoratu Berlusconi kategoriatik txikiagokotzat jotzen kultura arabiarri buruz egindako adierazpenak. Hala, bada, lege sisteman oinarritutako gizarte masa batek, bere kulturari ez dagokiolako, beste kultura baten eskubideak urratzen dituenean, ekintza xenofobotzat edo arrazakeriatzat hartzen dugu; esate baterako, kultura horretako ikono kulturalen mespretxuzko ekintzak. Modu berean, kultura batek ezinbestean garatu behar den eremu geografiko eta politiko jakin batean ezarritako eta eskuratutako berezko eskubideak baditu, baina botere hertsakor eta legal handiagoko beste kultura batek lehenengoaren garapena oztopatzen eta geldiarazten badu, gauza bera pentsatuko genuke, are gehiago bigarren kultura horrek aurrekoa baino "goragoko maila batekotzat" jotzen badu bere burua. Horixe da Nafarroan gertatzen ari dena kultura nafar-espainiarraren eta kultura nafar-euskaldunaren artean.

Demagun, egoera hipotetiko bat imajinatuz, polizia nafar-euskaldun batek (Euskal Herriak autode-terminazioa lortuko balu, adibidez) beste kultura bateko ikono kultural bat lapurtzen eta suntsitzen duela: ikono

arabiarrek edo Europako erdialdekoak, edo ikono espainiar klasikoak, esate baterako On Kixoteren irudiak (ikono moduan ulertuz eta literaturako elementu bat dela alde batera utziz, edo aspaldiko herri sinesmenak, Olentzero adibidez). Izan ere, Ordena Publikoko indarrek mespretxuzko eta indarke-riazko ekintza horixe egin baitute nafar eta euskal ikono maitatu baten aurka, Olentzeroren aurka hain zuzen ere, eta lapurtu eta hondatu egin dute; horrekin batera, beste ekintza larri batzuk ere egin dituzte "beste kultura" horren aurka: euskara hutsean lan egiten duten irrati edo telebistei emititzeko baimenik ez eman; hainbat udalen gehiengo demokratikoei hezkuntza zonalde mistoan txertatzeko egindako eskaerei jaramonik ez egin; hezkuntza eredu jakin batzuk sortzea eragozteko derrigorrezko *numerus clausus* delakoak ezarri; euskara babesteko erakundeei zuzendutako diru-laguntzak murriztu; errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz idaztea ez onartu, euren arauen kontra joan arren; erakunde publikoetan Nafarroako hizkuntzetako bat ezagutzeko eskaerari inolako jaramonik ez egin; herri baten izendapen ofizial elebidunari buruzko udal erabakiak atzera bota; duela gutxi arte eta urte askotan zenbait ikastolari diru-laguntzak ukatu; zigor administratiboak ezarri Olentzerorekin irteteagatik, eta abar; horri guztiari gehitu behar zaio nire ustez hartu den erabakirik larriena, eragin didan nazka eta minagatik eta ondorioek izan dezaketen garrantziagatik: unibertsitatean euskararen presentzia duina ia debekatu izana, duela gutxi lotsagabekeria handienaz berretsitako erabakia, eta agintarien azken promesetatik at, ez baitakigu betetzeko asmoz eginak diren edo soilik hauteskunde-erreklamoak diren.

Berreskuratze prozesuan (eskubide osoz) dagoen hizkuntza bati egindako kaltea hilgarria da, eta horren bultzatzaileek ondo dakite hori; izaki ahul eta zauritu baten kontra joatea da, altxatu nahi baina eraso etengabeak jasaten dituen. Jakina, berez oso ahul dagoen zerbaiten kontra jotzen

dugunean, erasoaren ondorioak are larriagoak dira. Eraso horien benetako arrazoia maila desberdinetako kulturak direla pentsatzea da, goi-mailakoa eta behe-mailakoa, eta kontzeptu hori berez xenofobia da. Izan ere, bi kulturak guztionak dira, eraso jasaten duen kultura ere horren kontra doanarena ere izan beharko litzateke, eta beraz, aipatu ekintza horiek guztiak berea den zerbaiten fagozitatzaile lirateke; baina Nafarroan euskararen kontrako eraso politikak diseinatzen dituztenek ez dute euskal kultura euren kulturaren barnean sentitzen, jendaurrean hala esan behar izaten duten arren, eta beraz, ez dute fagozitismoa egiten ari direla pentsatzen, hau da, ez dute beren kultura jaten ari direla pentsatzen; "beste" erasotzen dute, beheagoko mailan dagoen kultura, goragoko mailan dagoenak dituen "kalitate" esparru berberak -Unibertsitatean adibidez- merezi ez dituen.

Ez dago kultura maila desberdinik, egotekotan garapen maila desberdinetan dauden kulturak leudeke. Kultura bati aldeko egoera batean garatzen uzten badiogu (gogoan izan historian ez dela hala izan), esparru desberdinetan modu berean garatzea lortuko du: definizioa, kontzeptualizazioa, aberastatua, zolitasuna, konposizioa, konplexutasuna, sormena, zientzia eta giza adierazpen guztietarako egokitzapena, kontzeptu eta ideien arteko lotura, sormen lirikoa, narratiboa eta adierazkorra, edozein eremu zientifikotan garatzea eta baita beste edozein arlotan ere.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara duintasunez garatzeko debekua ezarri da, kultur xenofobiaren beste adibide bat, garrantzi itzela duena. Euskarak Nafarroako Unibertsitatean berdintasun egoeran egoteko eskubide osoa du, eta aukera hori ukatzen diona (UPN-CDN, PSOE konplize dela) kultur xenofobiaren ekintza larria egiten ari da, neurri hertsagarria biziki garrantzitsua baita duintasuneko hizkuntza eta kultura gisa euskarak Nafarroan bizirik irauteko●

(*terapeuta; historian lizentziatua)

[naroa cuesta & ainhoa arriaga]

AHT-TAV

AHT siglak ezagunak zaizkigu jada, azkenaldi honetan auzi honen inguruan gizarte eztabaida biziki piztu baita. Izan ere, makroproiektu hau bideratzeko lanak dagoeneko hasi dira Urbina aldean, protesta artean, eta inguruko herrietan erreferendumak egin dira herritarren iritzia ezagutzeko. Gehiengo zabal batek Abiadura Handiko Trenaren aurkako jarrera azaldu du. Halaber, erakundeetatik tantaka heltzen den informazioa nahasia da oso. Egoera ikusita, kalera irten gara jendeak zer uste duen jakiteko:

- 1.- Zer deritzozu AHT proiektuari?
- 2.- Proiektua aurrera eramatekotan zein ondorio ekarriko dituela aurreikusten duzu?
- 3.- Azkenean 'Euskal Y'-a eraikitzen badute, erabiliko duzula uste duzu?



Ainhoa Jauzoro, ingeniaria

1.- Ez zait ondo iruditzen. Ez dut oso ondo ezagutzen proiektua baina, hala ere, ezagutzen dudana ez zait batere gustatzen. Gainera, zuzenean bizi ditut kalteak, izan ere, nire aita nekazaria da eta lurren desjabetza lehen eskutik bizitzen ari da.
2.- Kalteak egongo dira onuren gainetik, nire ustez.
3.- Ez dut uste. Kotxea erabiltzen dugu gehienbat, edo bestela autobusa. Ez dut beharrezkoa ikusten. Orain ez nuke erabiliko, baina etorkizunean nork daki.



Gorka Elgoibar, bizizalea

1.- Proiektuaren kontra nago erabat. Arrazoiak mila dira: arrazoi ekologikoak, gizarte antolaketa arrazoiak... Borrokan dabil jendea zer edo zer jakin nahian AHTren inguruan, eta Nuria Lopez de Gereñu sailburuak gezur latzak esaten ditu horren gainean. Horregatik, mundu guztia animatzen dut proiektu honen aurka lanean jartzeko.
2.- Ekologikoak argi daude, baina horretaz gain, gizartea antolatzeko eredu berria sortuko du. Merkantziatarako tren bat izango da batik bat eta hirigune handien arteko loturak sortuko ditu, horrela herri txikiak baztertuz.
3.- Ezingo nuke inoiz esan erabiliko ez dudarik. Internetekin edo autobiekin gertatu zen bezala, azkenean urgentzia batek eraman gaitzake derrigorrez hartzera.



Ixiar Mateos, irakaslea

1.- Kontra nago guztiz. Zergatik? Txikizio bat delako, ez? Bakarrik batzuei egiten dielako on.
2.- Askok. Ekologikoak batez ere. Adibidez, mendia txikituko dute guztiz eta herri asko baztertuta geldituko dira.
3.- Ba ez dakit, baina espero dut ezetz.

AZKENORDUKOA



[arg.: edorta sanz]

Iruña-Veleia

Idazkun gehienak III. mendekoak direla baieztatu dute arduradunek

Aurkikuntzak benetakoak ote diren dudak azaldu izana kritikatu du Eliseo Gilek zuzentzen duen taldeak

Azaroaren 24an Iruña-Veleia aztarnategiko arduradunek, prentsaurrekoa deituta (Oka-Iruñako gizarte etxean), komunikatu bat irakurri zuten azken boladan hainbat adituk zabalduzko zalantza eta susmoei aurre eginez. Bertan aztarnategiko zuzendari Eliseo Gil, Idoia Filloy arkeologoa, Ruben Cerdan fisiko nuklearra, Santos Yanguas EHuko Antzinako Historiako katedraduna, Emilio Ullarregi arkeologoa eta Zoilo Calleja Arabako Elizbarrutiko Ondare arduraduna egon ziren.

"Aurkikuntzaz publikoki agertu dituzten zalantzak arduragabeak eta gaizki dokumentatuak izan dira".

"Ezin da errealitatea aldeztu aurretiko iritzietan txertatu, iritzi horiek erosoak, onartuak eta ondo ezarriak izanik ere. Errealitatea onartu behar da, eta heldutasuna behar da".

Hainbat adituk Veleian agertu idazkunak benetakoak ote diren zalantzak agertu dituzte azken boladan hainbat komunikabidetan. Adierazgarriena agian, Joaquín Gorrotxategi Veleiako taldeko hizkuntzalariarena izan da. Irakurritako agiri adostuak ez dakar Gorrotxategiren sinadura, bai ordea Knörrena.



JAKIN ALDIZKARIAK 50 urte


www.jakingunea.com

**JOAN MARI
TORREALDAI**, zuzendaria:

*“Haizeak nondik jotzen duen
edo norantz doan
asmatu nahi dugu”*



Arantzazun sortu zen Jakin aldizkariak 50 urte beteko ditu aurten, eta bakarra da, oraindik, bere esparruan. Kultura, gogoeta eta hausnarketak zabaltzeko plaza izan da Jakin mende erdi honetan. Joan Mari Torrealdai (Forua, 1942) 1968tik da aldizkariaren zuzendari, Karlos Santamaria eta Rikardo Arregirekin batera. Torrealdai aldizkariaren historia eta geroa aztertu du GEUrekin.



GAIAK
«Papers de Salamanca» aberriratzeko borroka eta Comissió de la Dignitat TONI STRUBELL I TRUETA
Euskal irakurlea: 2004ko Durangoko Azokako neurketa IDURRE ALONSO
EGUNEN GURPILEAN
JON BENITO // PABLO SUBERRIOLA // PATXI GAZTELUMENDI

[edurne begiristain]

[arg.: jakin]

Jakin-en hasierak nola gogoratzen dituzu? Zaila izan zen?


Jakin aldizkaria sortu zenean mutil koxkorra nintzen ni. Zortzi bat urte beranduago sartu nintzen Jakin-en, eta horrek aldatu zuen nire bizitza, 40 urtetik gora Jakin-i lotua bainago, horietatik 35 bat zuzendari gisa. Hasiera zaila izan ote zuen galdetzen duzu. Alega jaio zen aldizkari batek lanak ditu onarpen soziala lortzen. Pixkanaka-pixkanaka eskuratu du hori, urte asko igaro dira harik eta gaurko erreferentzialtasun batera iritsi den arte.

Mende erdia bete duzue... ospatzeko moduko urteurrena?

Zalantzarik gabe. Ez da ohikoa aldizkari baten bizitzan, eta are gutxiago euskarazko aldizkari baten kasuan. Begiratu ingurura, eta ikusi. Izan daiteke baten bat jaiotze data zaharragoa duena, baina egon ziur ez duela Jakin-en jarraitasunik izan. Debekatuta egon denean ere, Jakin taldeak produzitzen jarraitu du. Aldizkaria ezin dela atera? Bada, liburuak argitaratu, eta aurrera. Harritzekoa bada ere Jakin-en jarduna ez da eten, nahiz eta bi aldiz debekuak jaso. Debekualdietan Jakin Taldeak lanean jarraitu zuen 'Jakin Sorta' izeneko liburu bildumaren bidez.

Zer balorazio egiten duzu Jakin-en ibilbideaz?

Niri barik besteei dagokie horri erantzutea, ulertuko duzunez. Nik, barrutik ikusita, balorazio oso positiboa egiten dut, era askotako lorpenak eskaini izan dizkiola euskalgintzari, euskararen alorrean, gaien alorrean, ikuspegi zabaltasunean. Ikusi besterik ez dago hemerotea. Jakin-en webgunean 200dik gora zenbaki aurkituko dituzu, 1.400 idazlan, 100 idazle. Datu kuantitatiboak dira hauek. Alderdi kualitatiboak ez dira eskasagoak: ikuspegi aniztasuna, proposamen eraikitzaileak, kritika iradokitzaileak, gaien aberastasuna. Norbaitek esana du euskal kulturaren "ibilbide orria" dela



harritzekoa bada ere jakin-en jarduna ez da eten, nahiz eta bi aldiz debekuak jaso

Jakin. Jakin-ek ez du "guk irakurtzeko" bakarrik balio, baizik eta baita "gu irakurtzeko" ere; Jakin-en bidez irakur daiteke euskal kulturaren ibilbidea edo eboluzioa.

Aldizkariaren hasierako helburua zein zen?

Euskara eta kultura uztartzea. Gaur ez du ematen esanguratsua. Baina orduan nobedadea izan zen. Euskararen balioa gramatikatik eta literaturatik haratago planteatu zuen Jakin-ek. Euskara salbatzeko modu bakarra kultura modernoko lanabes egitea zela. Euskarari kultur statusa eman zion Jakin-ek hasieratik bertatik.

1956ko bultzatzaileen irudiko, Jakin gerra osteko belaunaldiko lehen esperientzia kultural autonomoa izan zen. Ados zaude?

Hala da, izan. Zer esan nahi duen honek? Orduko gazteek sortu zutela, alde batetik; eta bestetik, maisu zaharragoen gidaritzarik gabe abiatu zirela bide berrietan. Gerrak sortu zuen etenaren zuloan jaiotzen da aldizkaria. Belaunaldi honek gauzatuko edo bultzatuko ditu geroago, esaterako,


ikastolak, alfabetatzea/euskalduntzea, euskal kanta berria, euskara batua, hitz batean, abertzaletasun berria eta euskaltzaletasun modernoa.

Euskara eta filologia, eta euskara eta literatura binomioak soilik ezagutzen ziren garaian, euskara eta kultura uztartu zituen Jakin-ek, 1956an...

Halaxe da, bai. Horixe da, gainera, Jakin-en espezifiko edo berezitasuna. Uztarketaren bi poloetan du eragina horrek: euskara trebatu egin behar zen, tresna kultural, hizkuntza kultoa eta bateratua lortzeko; bestetik, kultura modernoaren esparru guztiak landu behar ziren euskaraz, ez soilki baserriko kontuak. Franco-ren hizkuntz politikari aurre egin zion Jakin-ek. Francok ez zuen euskara hil nahi. "Intimitatean" egin zitekeen euskaraz. Francok nahi ez zuena da euskara kultur hizkuntza bilakatzea. Eta justu horixe da Jakin-en egitasmo nagusia.

Batuaz idazten lehenetakoak izan zineten Jakin-en. Euskaltzaindiaren 1968ko bilera famatua baino 10 urte lehenago jada antzematen zen horren kezka aldizkariaren atzean zeudenen artean. Harro egoteko modukoa da hori, ezta?

Santi Onaindia ezagunak esan zuen Jakin-ek hartu zuen jarrera hartu izan ez balu, euskara batua ez zela agian gauzatuko. Gaur lore bat da Jakin-en alde, ohorea, baina esan zuen garaian salakuntza zen. Nolanahi ere, egia da



Jakin-ek herri honen gogoeta landu eta garatu nahi du, beste askorekin batera

Jakin-ek lehen ordutik bizi izan zuela euskara batzearen premia. Beti baztertu ditugu txokokeriak. Egia da, baita ere, Jakin-ek jada 1965ean Baionako erabaki haiek onartu eta aplikatu egin zituela, Euskaltzaindiak erabakiak hartu baino lauzpabost urte lehenago, eta gainerako aldizkariak baino hamar bat urte aurretik. Gure historia osoa euskara kultoari lotua egon da.

Kultura eta euskararen arteko harremana ere asko nabarmendu duzue beti. Politikatik bereizteko?

Kulturaren autonomia azpimarratu dugu beti. Eta ez zaigu beti ongi ulertu. Ez gara "kulturalistak", hau da, kulturak politikarekin zerikusirik ez duela defendatzen dutenak, kultura autista baten aldekoak. Esaten duguna da euskarak, kulturak alderdien jokotik at behar duela. Gure herria hain txikia eta horren politizatua izanik, kultura politikaren zurrumbilotik ateratzen ez badugu, jai du euskal kulturak, jai du euskarak. Esperientzia lekuko. Hainbat egitasmo sortu da kulturgintzan karga politikoarekin, eta non daude orain? Politikak gure gizartearen errazegi fagozitatzen du kultura, irentsi egiten du.

Kultura, gogoeta eta hausnarketa zabaltzeko plaza izan da Jakin, baina baita eztabaiden aterpe ere.

Jakin-en orrietan denetik aurkituko duzu, baina batez ere ugari: proposamena, gogoeta, hausnarketa, eztabaida intelektuala. Jakin-ek gizarteko eragile askorekin batera egin du lan hori, guztiei leku eginez, ikuspegi desberdinak landuz, eta besteekiko begirunea betiere gordeaz.

50 urte joan dira jada, eta urte horietan debekuak egon dira eta gaingitu dira; eztabaidak egon dira eta euskara batu egin da; garai politikoak eta polemikoak ere izan dira... eta horietan guztietan irauteko bidea aurkitu du Jakin-ek. Nola?

Garai errazik ez dago aldizkari batentzat,



baina gaurkoa baino zailagoak ere ezagutu ditugu.

Garai nahasiak ugari ezagutu ditu Euskal Herriak Jakin-en bizialdian, 50 urtez. Jakin-en iraupenaren sekretua ez da Coca-Colaren sekretuaren parekoa. Jakin-en erreferentzialtasunaren oinarri-oinarrian bi osagai aipatuko nituzke: taldea eta proiektua, eta biak independienteak. Jakin ez da indibiduo baten proiektua, Jakin Taldearena baizik. Ez taldea, ez proiektua egon dira inoren menpe edo morroi, ez inoren estrategiapean, modu irekian eta garbi jokatu dugu, ez dugu etsi eta ez gara inoren

norbaitek esana du euskal kulturaren "ibilbide orria" dela Jakin. Jakin-ek ez du "guk irakurtzeko" bakarrik balio, baizik eta baita "gu irakurtzeko" ere

aurrean makurtu. Horra gakoa. Urteak joan eta urteak etorri eskaini dugu fidatzeko nahikoa berme.

1970ean, zuzendaritza hartu berritan, zentsura eta isilaldi luzea ezarri zuten Jakin-en. Hala ere, ez zen desagertu. Horrek eskatzen du benetan sinestea Jakin aldizkari bat baino gehiago izan dela eta dela, garrantzitsua dela, ezta?

Gustatu zait hori, Jakin aldizkaria baino gehiago dela. Jakin-ekin maiteminduta egon naizenetako bat naiz ni, hartan sinesteaz gainera. Unerik txarrenetan ere eutsi egin diogu proiektuari, debekuak debeku, isilaldiak isilaldi. Ez dugu sekula abandonatu.

Aldizkaria martxan jarri zenetik gaur egun arte zertan aldatu da irakurlearen profila?

Zertan aldatu den euskal kultura esaten badidazu, erantzungo dizut. Orduan orduko irakurlea genuen eta gaur >>



gaurkoa. Irakurle askok, egia da, gurekin batera egin dute bidea, eboluzioa. Leialtasun handiko jendea dugu gurekin. Beste asko bidean erantsi zaizkigu. Garai batean izan zitekeen gaur baino euskararen militanteagoa agian, euskara salbatzeagatik-edo aldizkaria erosten zuena. Gaurko irakurlea ordukoa baino pluralagoa da, euskaldun kultua, hiritar kezkatua.

"Behar duzu informatu, galdetu, eta jakin". Garai batean Jakin-ekin batera zetorren leloa da. Galdu da lelo hori aldizkarian, baina gaur egun gaurkotasun osoa du oraindik haren esanahaiak, ezta?

Slogan gisa desagertu da, baina ez gure gogotik. Axular handiarena da esaldia, eta guk geuretzat hartu genuen: gure ustetan gizarte moderno honetan ezin da bizi informaziorik eta jakintzarik gabe, informatu, galdetu, eta jakin gabe. Hitz joko honen bidez, 'Jakin aldizkaria' behar duzula iradoki nahi genuen.

Orain hautatu dugun formula beste bat da. "Haizea dakiten orriak" omen dira Jakin-enak. Hala dio iragarkiak. Zer da



haizea jakitea, ordea? Ez dakigu jakin. Agian, haizea nondik jotzen duen asmatu nahi dugu, edota norantz doan. Garaian garaiko haizeak. Gaur gaurkoak. Haizea jakiten badugu beti gara moderno. Nola lortu hori informatu gabe, galdetu gabe, jakin gabe?

Eta, etorkizunari begira, zeintzuk dira Jakin-en erronka nagusiak?

Etorkizuna galde ikurrez beteta ikusten dugu Jakin-en. Ea asmatzen dugun

etorkizunaren haizeak zer dioen. Garai nahasi hau ez da erraza guretzat, ez euskararentzat, ez euskal kulturarentzat, ez Euskal Herriarentzat. Ezta beste inorentzat ere, egia esan.

Gauza bat dugu garbi: guk geureari eutsiko diogu, euskarari; gure proiektuan, orain arte bezala aurrerantzean, euskal kulturaren mesedetan egingo dugu lan. Baina nola? Euskarri bat baino gehiagotan, seguru. Gogoeta eginez, seguru.

Gizarte modernoaren ezaugarriek moteldu partez indartu egiten dute Jakin baten premia. Globalizazioaren garaian, pentsamendu ahul eta bakarraren garaian, informazio-uholdea gainezka dugun aroan, are eta premiazoagoa da gogoeta, hausnarketa, espiritu kritikoa, gertatzen dena ulertu, interpretatu eta liseritzeko. Euskal kulturak ezin dio uko egin pentsamendua sortzeari, herri bat garelako geure kulturarekin, geure hizkuntzarekin, eta ez kolonia edo sukurtsala. Jakin-ek herri honen gogoeta landu eta garatu nahi du, beste askorekin batera●

KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

MIKEL HERNANDEZ BETOLAZA

“Antzerkiaz bizi ahal izatea da nire ametsa”

[ainhoa arriaga & naroa cuesta] [arg.: edorta sanz]

Gogo askorekin ekin diote jada 5 emanaldiko bizitza duen lan honi eta orain arte euren publikoa diren haur eta gurasoak oso pozik azaldu dira. Gaurkoan, Mikelek Jakin-en papera alde batera utzi du, bere gustu pertsonalen inguruan aritzeko; beste gauza askoren artean, bere zaletasunen inguruan egin dugu solas.

Duzun biziorik handiena? Ohean denbora gehiegi pasatzea.

Bertuterik? Eskuzabala naizela eta entzuten badakidala.

Akatsik? Harrotasun puntu bat badut.

Zer baloratzen duzu gehien gainontzekoengan? Lagunak behar ditudanean egon behar diren lekuan egotea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Inpuntualtasunak.

Zure gorputzaren atalik politena? Begiak.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Dazkadan proiektu gehienak burutzea lortzea.

Zeintzuk? Neska-lagunarekin ditudan eta baita lan proiektuak ere.

Zer da zuretzat ipuin-kontalari aritzea? Komunikazio forma bat da niretzat, interesatzen zaizkidanak ipuinen bitartez kontatzeko aukera. Umeak literaturaren munduan barneratzea interesatzen zaigu, ipuinak heziketa modu bezala erabiliz.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Noiztik? Bai, duela urtebete eta erdi ezagutzen dudala, tabernetan lagunen zain nagoenean irakurri ohi dut.


Harpidedunak behar ditugu... (20

euro dira urte osoan...). Atala nola gelditu den ikusiko dugu eta horren arabera pentsatuko dut (barre artean).

Antzerkia edo zinea? Antzerkia, 'A long day's journey into night' antzezlanaren hautatuko nuke, bat aukeratu behar izatekotan.

Beldurrik? Bai, ulertezintasuna eta inposatutako bakardadea.

Mikel, 21 urteko ingeles filologiako ikasle gasteiztarra dugu. Baina horretaz gain, 'Jakin eta Jolas' antzerki proiektu hasi berriaren partaide garrantzitsua da, izan ere, Jakin-en pertsonaia antzezten baitu.



Oporrak non eta zertarako? Europako iparraldean dut gustukoena, hori bai, lagunekin ahal bada eta ahalik eta gehien mugituz.

Eguna ala gaua? Gaua.

Gasteizko gaua, non? Kutxi kalean eta orokorrean musika dezentea ipintzen duten tabernetan.

Musika talde bat, abesti bat? Pearl Jam, beste askoren artean, eta hauen 'Black' abestia.

Kantautorea, bai edo ez? Balio erantsi bat da bakoitzaren lana interpretatzea. Guk ere antzezlanetan guk idatzitakoak jorratzen ditugu. Dударik gabe, beraz, kantautorea.

Liburu bat? Orwell, 1984.

Film bat? Tim Barton-en azkenaurreko 'Big Fish' filma. Ipuin-kontalari batzuei buruz dihardu eta horregatik oso identifikatuta sentitu nintzen.

Zer da Gasteizek duen onena? eta txarra? Gasteizko alde zaharra piloa gustatzen zait, kaleetatik paseoan ibiltzea. Argi gutxi dagoela esango nuke dela txarra.

Zein da zure iritzia PERIaren inguruan? Nik ez nuke aurrera eramango.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Zaila da, baina saiatuz gero, lortu daiteke.

Amets bat? Asko, egunero. Antzerkiaren bitartez bizi ahal izatea.

Amesgaizto bat? Bi kilo eta erdi pisatzen dituen nire txakurrak jaten ninduela.

Anekdotak bat? Azken ikuskizunean euritako oso zahar eta ziztrin bat lapurtu ziguten.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur eguna. Egunean bizi behar gara beti.

Zer eskatzen du herriak? Herriak gauza asko eskatu beharko lituzke, eskatzen ez duenak ez duelako ezer jasoko ordainean.


PARRAL tabernak 11 jada!

Azaroaren 28a eta abenduaren 5a bitartean Gasteizko Alde Zaharrean kokaturiko Parral taberna 11. urteurrena ospatzera doa. Urte osoan zehar tabernak eskaintzen duen giro kulturala, euskalduna, jatorra eta atsegina areagotuko da lau eguneko egitarau anitz baten bitartez, bere ibilbide luzean zehar landurikoaren lagin garbia.



jatetxeko langileak

idoia, iñaki, 'txunbi' eta 'flota' parraleko kideak



[josune veleaz de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Iñaki Lazkanok ondo ezagutzen zuen Gasteiz, Eibarretik hiriburu arabarrera ikastera etorri baitzen. Garai hartako zein honetako edozein gazte bezala taberna giroan mugitzen zelarik, behin proposamen bat egin zien Ermuko lagunei. San Frantzisko Xabierkoaren kale-kantoian zegoen taberna ixtera zihoan eta zergatik ez beraiek hartu? "Lan irtenbidea zen -dio Idoia Astarloa Parraleko kideak-. Baina gu mundu horretan, taberna eta ekitaldi kulturalenean, alegia, asko ibiltzen ginen eta tabernaz gain toki hura beste zerbaite izan zedin nahi genuen".

Lehendabiziko urteetan 'Kontrakultura' ekimenekoekin batera zenbait ekintza kultural puntual hasi ziren eskaintzen tabernan eta, osterora norberak bere aldetik

...parraltabernajatetxeak akerrezitaldiakbidaiakipuir



jo bazuen ere, Parralek Gasteizko euskarazko ekintza kulturalen arloan agenda berritzailea osatzen asmatu zuen. "IKA euskaltegiaren taberna zen eta garai horretako bezeroak bereganatu genituen hastapenetatik -diote kideek-. Hasieran guk bilatu behar genituen ipuinkontalariak, musika taldeak, antzezlanak eta abar, baina urteen poderioz jendeak gugana jo izan du". Formatu txikiko ikuskizunak eskaintzen ditu tabernak asteartero, eta hori duda barik Gasteizko Alde Zaharretik mugitzen den ikusleak aise ikasi du. "Askotan musika, antzerkia edo dena delakoa dagoelarik, jendea tabernatik pasatzen da, bertako ikuskizunaz gozatzeko besterik ez", onartu dute. Parralek, horrela, antzerkian, musikan, bertsoan eta abarretan hasi berriei ere lekua irekitzen die; bai eta eginiko bidaien kondairak eta

parralek gasteizko euskarazko ekintza kulturalen arloan agenda berritzailea osatzen asmatu zuen


pasarteak erakusteko grina dutenei ere, besteak beste. Beraz, izen ezaguna duten eta hain ezagunak ez diren kulturagileek bat egiten dute Parral tabernaren egitarau zabalean.

Kultur ikuskizunak, jatetxea eta festa giroa. Eskaintza zabala

Ezaguna da oso hamaika urteren buruan, Iñaki Lazkano, Idoia Astarloa, Aitor Uriarte eta Iñigo Ortizek kudeatzen duten taberna.

"Gasteizko Alde Zaharrean eskaintza kulturala areagotzea bestelako asmorik ez genuen, eta pozgarria da hiriko gainontzeko jendearekin hitz egitean taberna ezaguna dela ikustea".

Kalea aldatu dela nabarmentzen du tabernari lagun taldeak. "Lehen jendea gehiago ateratzen zen. Gaur egun ekonomiaren egoera ere antzematen da kontsumitzeko orduan", onartu dute. Hala ere, giroa ez da sekulan falta izan tabernan. Astearte kulturez gain, asteburuetan musikaz gozatzeko giro ezin hobea dago eta astean zehar ere bazkariak ematen dituzte. "Zerbait desberdina egitea otu zitzairen jatetxea eramaten dutenei, beraiek erabaki zuten janari begetarianoa ematea", eta ordutik jatetxea leporaino betetzen da astelehenetik ostirala bitartera.



ontzertuak antzerki abertso- nkontalariak topagunea...



Tabernarekin hasi zirenean laukotearen xedea xumea bazen ere, egun auzoaren parte eta bizilagun bilakatu dira aspaldian dagoeneko. Hortaz, Alde Zaharrean existitzen diren eskakizun eta beharrei heldu diete gazteek gainontzeko tabernari batzuekin batera. Aurten hiriko erdigunean uztailen Gasteizko Jazz Jaialdia gauzatzen ari zela, eurek ondoko Kitsch eta Gora tabernekin batera -hirurak kanto berean daude-, Jazzaharrean izeneko egitasmoa antolatu zuten. "Oso ondo atera zen. Orain arte jazz hiriko erdigunera eta Mendizorrotzara mugatu du Udalak", argudiatu dute. Kontzertuak uda partean besterik existituko ez balira bezala eta kutsu elitistaz, zenbait hiritarren iritziz. "Askotan bertako taldeei lekuri ez zaie egiten horrelako jaialdi handietan", diote. Tabernek erakutsi zuten gaztea edo izen ospetsua izatea ez dagoela kalitatearekin eta profesionaltasunarekin lehian. "Iazko ekimenaren ondorioz ematen du datorren ediziorako Udalak Buruileria plazan ere kontzertuak eskainiko dituela", aurreratu zuten tabernariak. Euren ekimenak Udalarik begiak ireki dizkiola ematen du eta benetan poztzen dira Alde Zaharra ere jazz giroaz goza dadin.

Hamaika urte bete ditu Parralek eta beste hamaika beteko dituela ere apustu egingo lukete bezero askok. 11 zenbakiak ere hori adierazten du. Laukoteak barre egiten du eta orain artekoaz pozik daudela onartzen dute. Zorionak eta urte askotarako!●



PARRAL

egitaraua

Azaroak 28, asteartea, 20:30ean:

musika saioa:

EORANN

(pop, post-rock, noise) Bilbotik

GEU elkarteak antolatuta

Azaroak 30, osteguna, 21:30ean:

bertso saioa:

UNAI ITURRIAGA

JON MAIA

IGOR ELORTZA

Gai-jartzailea: JOSU GOIKOETXEA

Abenduak 4, astelehena, 21:30ean:

bakarrizketa-umore saioa:

'EL TXOU DE PATXI'

Gorka Aginagalde

Abenduak 5, asteartea, 20:00etatik aurrera:

XI. urteurren-festa saioa:

20:00etan: zirko saioa & afari-merienda-lunch


CIRCOSIS company: 'Rueditas y estorbin'

23:00etatik aurrera: disko-jartzaile saioa

SILUM SOUNDZ

videoproyectiles: ISdeO

pinchadiscos: Cubo & Kar Dj Shola





kunka antzerki & telebista produktora abian

kunka, antzerki eta telebista produktora berria jaio da. sortzaileak eloi beato, josean de miguel eta gorka aginagalde aktore gasteiztar ospetsuak ditugu, hirurak ekoizpen artistikoen munduan ezagunak eta ibilbide luzea egindakoak. umorea eta komedia dituzte identitate ikurrak. gasteizko sagartoki jatetxean egin zuten aurkezpena azaroaren 9an, ardo ona eta pintxo goxoak barre algarez ziprztinduz. bejondeiela!

el euskera discrimina

el euskera discrimina (esbastikaz), di no al euskera, más dibujos en castellano en la etb2, euskera no (esbastikaz), no a la imposición del euskera, eta por un vitoria mejor dira gasteizko lakuabizkarra auzoan "banatu" (lurretik botata zeuden) orriak. ezjakintasuna, xenofobia kulturala, bertako hizkuntza eta kulturarekiko begirune falta... besterik? euskara gero eta indartsuago dagoen seinale ote? ...eta gainera, noiztik daude euskarazko marrazkiak etb2n?



korrika laguntzaile

aek-k korrika 15en laguntzaile kanpaina aurkeztu zuen azaroan. aek-k dei egin dio euskal jendarteari korrikaren 15. edizioaren antolaketan parte hartu eta korrika laguntzaile izan dadin. euskaltegietan edota korrikaren webgunean eskura daitezke bonoak, 12 euroren truke. 2007ko martxoaren 22an karrantzan abiatuko da korrikaren 15. edizioa.

www.korrika.net

hikaateneoak 5 urte

gasteizko hikaateneoak 5. urteurrena ospatu zuen pasa den azaroaren 10ean, jai giro atseginean. bilgunea, topagunea, eztabaidarako eta formakuntzarako gunea dugu hikaateneoa, eta bertan 5 urteotan ateak zabalduz askotariko ekimenak eskaini dituzte: hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak... urte askotarako, hikaateneo!



'krea' martxan

azaroaren 30etik aurrera abian da krea, sorkuntza eta kultura zentro berria, adierazpen garaikidearen gunea. gasteizko betoño atariaren kaleko komentu zaharra du egoitza eta vital kutxak babestu du. www.kreared.com

ahotsak & kultura

ahotsak ekimena kultur arlora zabalduko dute oraingoan eta atxikimenduak biltzeaz gainera, hilaren 2rako emandako aurrerapauso berri horren inguruko ekitaldia antolatu dute bilboko euskalduna jauregian. <http://ahotsak.blogspot.com/>

arabako toponimia

arabako 30.000 toponimotik gora berrikusi ditu eusko jaurlaritzaren hizkuntza politikarako sailburuordetzak. guztiak, azken 20 urteotan egindako gainerako lanen emaitzak bezala, bere webguneko datu-basean kontsulta daitezke. www.erabili.com

EUSKAL TONBOLA

bai
euskarari

Euro baten truke
milaka sarri!!!



Txartelak salgai Araba osoko tabernetan



Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoak

www.sartuenda.com

Kutxillena, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Errezeak, astoak eta beste guztiak

**JANTOKI
BEGETARIANO**

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 68 33

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisau



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

EYSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz


Confeciones Pinedo

JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa.: 945 23 39 90

MENDIA OPTIKAK 150 URTE



ikus dezazun

Zatoz eta eraman
opari-oroigarri
bat zure
erosketarekin

1856-2006

Mendia Optikan belaunaldiz belaunaldi zaindu ditugu zure begiak.

Gaur egun teknologia berrienak erabiltzen ditugu, baina hasi berrian bezala,
gogo eta arreta berberaz zerbitzatzen zaitugu.

150 urte bete ditugu, eskerrak zuri.

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz

JUANMA BAJO ULLOA:

“Beste film independente bat egitea nire buruaz beste egitea litzateke”

Susmo erabat okerra du Juanma Bajo Ulloa (Gasteiz, 1967) Madrilera lan bila joan den zine zuzendari euskalduna dela pentsatzen duenak. Urteak daramatza gasteiztarak autore zinea egiten, independentea eta zinema mundua kontrolatzen duen industriatik aldendua. Hala ere, Ulloak berak onartuta berea ez da bide erraza izan, “ezkutuko zentsura egun existitzen baita”. Datorren urterako proiektu berriak ditu, nahiz eta film independenteak egiteari utziko dion aurreratu.



[josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Zuzendari izateko grina zure gurasoek zuten argazkilaritza dendatik sortu al zen?

Zalantzarik ez horrek lagundu zuela. Baina ez nago ziur horrek bultzatu ninduen zinema mundura. Ez dut uste argazkilaritzako ikasketak izatea ezinbestekoa denik zinema egiteko, baina oso erabilgarri suertatzen da. Dendan zaleen material ugari ikusten nuen. Bestetik bataioak, ezkontzak eta jaunartze ugaritan ibiliak ginen. Azken finean, hortik edan egiten duzu. Hortaz, ezin gogoratu noiz egin nuen lehenengo argazkia. Ume bat nintzen.

Eta gogoratzen al duzu noiz egin zenuen lehen film luzea?


Lehendabizikoa hamalau urterekin egin nuen, zientzia-fikzioko istorio absurdu bat zen. Nebarekin egin nuen,

eta zinema egitea ordea, oso gauza martzianoa zen. Ez genekien nola grabatzen zen, eta egun batetik bestera egiten genuen. Hilabeteak ere pasa ziren grabatu orduko. Hori da nik lehenengotzat hartzen dudana film luzea, gidoia baitzuen. 'Cruza la puerta' izenburua zuen.

Ostera Gasteizko Zinemak produkzio-etxea sortu zenuen, alegia, egun 22 urte dituen egitasmoa. Nola eman zenuen jauzi hori?

Film luze hau Bilboko jaialdi batean aurkeztu nahi nuen eta film guztiak hangoak ziren, Donostiakoak eta gainontzeko tokietatik ere bazeuden baina Gasteiztik ez zen inor aurkeztu. Pentsatu nuen izen sinbolikoa zela Gasteizko

ez dut gogorik nire etxea berriro, ezta nire lagunak ere, hipotekatzeko



gidoirik gabe eta super 8-an grabatua. Ostean lagun batekin grabatu genuen, orduan 17-18 urte genituen. Garai horretan zinema gustuko zuenik topatzea ez zen erraza. Ez zen gaur egun bezala, non modan dagoen zerbait den. Lehen jendeak rock and roll-a egin nahi zuen

zinema aldarrikatzeko. Gerora, 'Akixo' egin nuenean, 1988an, diru-laguntza eskatzeko orduan erregistratu behar izan nuen, NIF eta guzti, eta orduan izen horrekin jarraitu nuen.

Enpresa erabat familiarra da, ama

eta nebeekin egiten duzu lan. Zer-nolako harremana duzue?


Eduardok eta biok gidoiak idatzi izan ditugu elkarrekin baina ez da oso lan diziplinatua. Nik argumentua imajinatzen dut eta hortik bakoitzak bere ideiak ateratzen ditu, ostean komunean jartzen ditugu. 'Alas de mariposa' filmarekin ekin genion elkarlanari 1991n eta 'La madre muerta' (1993) delakoan ere gidoia batera idatzi genuen. 'Airbag'-en berriz, beste batekin idatzi nuen gidoia baina *making off*-a Eduardok egin zuen. Nire amak finantzen kontua eraman izan du gehiago; diru-laguntzak, bankuei dirua eskatzea eta aurpegi atsegina jartzearen arduraduna dela esan dezakegu. Sinesgarritasun puntua ematen diona honi, hain zuzen.

'El reino de Victor' filmarekin Goya saria eskuratu 1990ean, eta zinema munduko atea ireki al zitzaizun?

Bai. Hala ere, 'Akixo' egin izan ez banu ez nukeen aukera hori izango. 'Akixo' laburrarekin jaialdi askotan ibili nintzen, baita estatukoak ere. Honek bultzada eman zidan film laburretik 'El reino de Victor' den film ertainera jauzi egiteko. Bestetik, argi dago Goya bat irabaztea mapan kokatzea bezala dela. Festa bat egiten da eta bertan visa *gold* txartela eskuratzen duzu. Saria jasotzea ere bada beste zerbait. Honen bidez jakiterik baituzu jendeari zuk egindako lana gustatzen zaion edo ez. Etxekoek eta lagunek ondo dagoela esaten dizute badakitelako lan handia egin duzula bertan, baina baieztapen objektiboena ikusleena da, ezagutzen ez zaituztenena, alegia. 'El reino de Victor' egin nuenean ordura arte zaletasuna zena lanbide bilaka zitekeela ulertu nuen.

Gero 'Alas de mariposa' eta 'La madre muerta' heldu ziren, oso drama-thriller generozko film luzeak. Jendeak Juanma Bajo Ulloa zine beltza, gordina, erreala, dramatikoarekin erlazionatu zuen?

Orain dena da beltza eta gero dena zuria. Etiketak egitea gustuko du jendeak,



'el reino de victor' egin nuenean ordura arte zaletasuna zena lanbide bilaka zitekeela ulertu nuen

ostera kaxoi batean sartzeko besterik ez bada. Dena sinplifikatzen duen sistemaren parte da. Nik ez dut ez bai ezta ez ere esaten, ez zait axola. Ez dakit ze generozko filmak ziren. Dakidan bakarra da pertsonalak eta batez ere niretzat terapeutikoak zirela. Nire burua adierazteko erabili ditut, barruan trauma eta min handiak nituelako. Psikiatra edo psikologo batengana joan beharrean dirua zineman gastatu dut eta behintzat gerora erreuperatu, neurri batean bada ere. Garai horretan gaztea izateagatik eta modu askean ibiltzeagatik, hau da, industriarako lan ez egiteagatik, begitan hartu ninduten... Euskal Herrikoa izateak ere asko laguntzen du kasu hauetan. Baina 'Airbag' egin nuenean, erakutsi nuen dramaz gain gauza dibertigarriak ere egin nitzakeela, eta erabat lortu nuen. Nahiz eta Madrildik (zinema industriatik) hutsa eman zioten. Kontraesan handia...

Eta bideo-klipak orduan etorri al ziren?

Ez. Garaiak dira. Barricada-rentzat

'Problemas' kantaren klipa 1994an egin nuen eta urte berean Los Enemigos taldearentzat ere beste bat. Iaz Su Ta Gar euskaldunentzat 'Itxaropen Hitza' grabatu nuen. Irekia egon naiz beti gauza desberdinak egitera, baina sekulan ez industriatik datozen aginteen mesedetara egotera. Interesatu ez zaizkidan gauzak ez ditut egin. 'Airbag'-ekin amaitu nuenean panorama publikotik desagertzea erabaki nuen. Mundu horretatik aldentuta sei urtez egon nintzen, objektu komertzialtzat ikusten nuen bertan nire burua, ez nuen onartu nahi zinema zerbait komertziala zenik. Horregatik ere antzerkian ibili nintzen, Pop Corn antzezlanara egin nuen. Gero 'Capitán Trueno' egitasmoarekin hasi ginen nahiz eta sekulan ez zen aurrera atera. Hortik aurrera, 'Frágil' filmarekin lanean hasi nintzen. Egitasmo alternatiboa izanik zortzi urtez murruren kontra talka egitea ekarri du.

Hala ere, 'Frágil' iaz estreinatu zenuen. Hortaz, merezi izan zuen harturiko esfortzu guztiak, ezta?

Bai, noski. Nik nahi nuena egin dut eta publikoaren poztasunak merezi izan duela adierazi dit. Baina gaur egun uste dut ez naizela gai autore film bat egiteko. Ezinezkoa suertatzen zait existitzen den ezkutuko zentsura hori ezagututa. Gaur egun ez dira guraizeekin

beti pentsatu dut industriarentzat lan egiteaz aparteko bidea zegoela baina ezetz ikusi dut

filmak mozten, baina grabatzea eta estreinatzea lortzen baduzu ere ostean komunikabideek hutsunea egingo dizute eta ez dute aipatu ere egingo. Zure kasa joatea zure buruaz beste egitea da.

Juanma Bajo Ulloaren hurrengo filma noizko?

Nire kasa lan egiteko asmorik ez dut. Ez dut gogorik nire etxea berriro, ezta nire lagunak ere, hipotekatzeko. Nik erabaki dut hemen, nire jaioterrian, geratzea eta Madrilerara ez joatea. Nire film guztiak hemen grabatu ditut eta hala eta guztiz ere, laguntzarik ez duzu jasotzen. Hogei urterekin jasotako diru-laguntza bera jaso nuen 37 urterekin. Beti pentsatu dut industriarentzat lan egiteaz aparteko bidea zegoela baina ezetz ikusi dut.

Baina zure lanak ikusteko aukera izango da, ezta?

Tira, jendea egongo da zeinak nola eta zein aktoreekin egin behar dudan esango didana. Industriaren filmak izango dira eta nik ahal dudan bezain ondo egiten saiatuko naiz.

Autore zinemaren aldeko ibilbidea egin duzu beti, ez al da erabaki hau galdutako borrokaren emaitza?

Ez, nik nire pelikulak eginak ditut jadanik. Mundutik mugitu ditut eta euren jabea naiz, inork ezin dizkit kendu.

Madrilen kokatzen den zinema industrian aritzeak ze kostu ekarriko dizu?

Bidesaria ordaindu beharko dudala pentsatzen dut. Denboraldi batez zigortua egongo naiz. Ostean, produktoreak esaten duenaren esanetara izango naiz. Aurten harturiko erabakia da hau eta oraindik ez dakit zer egingo dudan baina 2007rako tv movie bat edo, grabatzen saiatuko naiz●

NEUBAT TALDEA. 'STEREOSAURUS'

'Stereosaurus' dugu Neubat talde gasteiztarrak kalera atera duen disko berria. 14 abestiz osatutako lanak argia ikus zezan, taldeak Matasellos zigilu propioa eratu du, autoekoizpenaren erronkari aurre eginez.

[saioa fdz de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

Izan ere, taldearen benetako nortasuna islatzen duen disko honetan entzuleak Neubat taldeko betiko soinu astuna entzuteko parada izango du, baina rock klasikora gerturatu direla ere antzemango du. Honetaz guztiaz eta bestelako kontuez mintzatu da 'Kanda', taldearen ahotsa eta gitarra GEU aldizkariarekin:

Nolakoa da Neubat-en 'Stereosaurus' disko berria?

Disko hau egiterakoan taldearen benetako nortasuna islatu nahi izan dugu. Diskoa taldeak zuzenekoetan eskaintzen duenarik gertu egotea bilatu nahi izan dugu. Gure musika estiloari dagokionez, izenburuak berak gure asmoen berri ematen du: alde batetik, oinarri sendoa, astuna eta potentea, Saurioaren aldea; bestetik, melodikoa eta distiratsua, Stereoaren aldea.

'Dantzaldiko erreginak' aurreko diskotik, zein da Neubat taldeak bizi izan duen garapena?

Bi diskoei dagokienez, funtsezkoak diren pare bat desberdintasun nabaritzen dira: alde batetik, 'Stereosaurus' denbora tarte konkretu batean eginiko lana dugu. Esan genezake abestiak plazenta berdinetik atera direla. 'Dantzaldiko Erreginak'-en kasuan, bazeuden 3 urtetan zehar eginiko

abestiak. Alde horretatik, disko berriak koherentzia gehiago duela pentsatzen dut eta, era berean, freskoagoa dela deritzot.

Oraingo honetan gure soinu astuna mantendu dugula uste dut, baina rock klasikoaren zenbait aldetara gerturatuz. Ahotsak ere zaindu nahi izan ditugu. Bestetik, Libe hasiera-hasieratik egon da 'Stereosaurus'-en konposaketa prozesuan, aurrekoan ez bezala. Orain benetako garrantzia hartu dute bere teklatuak eta bere ahotsak.

Zertaz hitz egiten dute abestiek?

Egia esan, hitzak nahiko bereziak direla uste dut. Pare bat buelta eman behar zaizkie esanahia ikusten hasi baino lehenago. Nire ustez, hitzen mezua garrantzizkoa da oso, baina baita beraien forma ere. Nik esango nuke askotan ironiko xamarrek direla eta batzuetan sarkasmo puntu bat ere badutela.

Abesti guztiek ez dute letrarik, ordea:

3 instrumental dauzkagu eta beste bat ia-ia instrumentala dena. Batzuetan hitz oso baten ordeaz bi hitz baino ez ditugu esaten abesti osoan. Leiv Motivak erabiltzea gustuko dugu.


Disko honetan, Surfin Kaos edo Kuraiaeren kolaborazioak izan dituzue, besteak beste. Nolakoa izan da bestelako taldeekin izan duzun lankidetzatza?

Kolaborazio ugari izan ditugu disko honetan; Kuraia-ko Joseba, Surfin Kaos-eko Koldito, Sorkun-eko Fino eta Urko, Kashbad-eko Gorka Sesma, Sorkun bera ere, Naia Perez de Viñaspre... Parte hartu duten guztiekin gertuko harremana dugu, beraz, oso lankidetzatza familiarra izan da. **Zergatik erabaki zenuten Matasellos zigilua eratzea? Zeintzuk dira etorkizunerako asmoak?**

Pentsatu genuen gure ekoizpenen gaineko kontrola izateko garaia bazela. Izan ere, gure lan guztiak izan dira



"ZUZENEKORIK NEUBAT



GABE EZ DAGO ULERTZERIK"

autoekoiztuak, neurri batean. Honetan %100ean da autoekoiztua eta horrek esan nahi du diskoak, psikikoki edo musikalki ezezik fisikoki ere geurea dela. Gainera oso aberasgarria da guretzat horren garrantzitsua den proiektua konposaketatik argitaratzearaino burutzea; diskoak lokaletik dendetarako bidea nola egiten duen ikustea, alegia. Hori bai, lan apur bat gehiago exijitzen du, baina apurka-apurka urratsak ematen goaz.

Gaur egun merkatu diskografikoa nola dagoen ikusita, biderik egokiena aukeratu dugula uste dut. Eta ez gara bakarrak, talde askok eta askok hartu dute bide berbera. Printzipioz, Matasellos gure proiektuak argitaratzeko tresna bezala ikusten dugu, ez bestelako taldeen diskoak argitaratzeko, baina badakizu, inoiz ez dakizu zer gertatuko den... Hori bai, argi dugu Matasellos-ekin egingo dugun hurrengo lana gure grindcore proiektua izango

dela, VICE PRESIDENTES izenekoa. Urte amaierarako edo edukiko dugu kalean, espero dut...

Zeintzuk dira Neubat taldearen eragin musikalak?

Zerrenda ikaragarria jarri beharko genuke hemen gure gustuko diren talde guztiak sartzeko!! Gainera, talde batean beti barneratzen dira musika estilo asko, pertsona bakoitzaren gustuetaik esleitutakoak. Baditugu, ordea, talde komun batzuk: Helmet, Fu Manchu, Jeff Buckley, El Caco, Kyuss, Wolfmother, The White Stripes, Queens of the Stone Age, Sex Museum, Karma to Burn...

Jada kontzertuak ematen hasi zarete. Nolako garrantzia dute kontzertuek taldearentzat? Noiz ikusiko zaituztegu Gasteizen berriro?

Edozer baino lehen, gu zuzeneko talde bat gara. Zuzenekorik gabe ez dago Neubat ulertzerik. Beraz, garrantzia izatea

bainoago, Neubat-en existentziaren beraren muina direla esango nuke. Zuzenekoan taldea den bezala ikusten da. Diskoak talde baten isla baino ez dira, taldetik gertuago edo aldenduago, baino isla azken finean.

Bestetik, Gasteizen urtarrilean egongo gara Helldorado aretoan (urtarrilak 27, Sharon Stoner eta Potemkin taldeekin batera).

Nola ikusten duzue euskal musika taldeen panorama?

Lehen aipatu dugu Euskal Herrian merkatu diskografikoa krisian dagoela eta gainsaturatua. Dena dela, taldeen aldetik, nik oso ondo ikusten dut egoera, asko eta asko daude eta oso onak. Gasteizen ere mugimendua badago talde berrien aldetik. Horrelako mugimendu kulturalak beti dira osasuntsuak, dudarik gabe●

neubat zuzenean

abenduak 1- azkoitiko zurt taberna
abenduak 2- durangoko plateruena antzokia
abenduak 16 - irungo tunk! aretoa
abenduak 22 - bergarako gaztetxea
urtarrilak 6 - garralda
urtarrilak 13 - zaldibargo gaztetxea
urtarrilak 20- gorlizgo xurru aretoa
urtarrilak 26 - arrasateko 3/60 aretoa
urtarrilak 27- gasteizko helldorado aretoa

diskografia

>maketak:

oh saraboku itsu a tibi koa!! (1999)
football (2001)
neubat ep (2002, gara egunkariarekin argitaratua)
zure begi beltzak (gure apustua gorri izeneko bilduman, 2003an)
gure hitzak (gure irratia, zure rockanrolla bilduman, 2005ean)
>diskoak:
dantzaldiko erreginak (2004), metak diskoetxea
stereosaurus (2006), matasellos zigilua

taldekideak

kanda: gitarra & ahotsa
libe: teklatuak & ahotsa
atxux: baxua
ima: bateria

S.A.M.A ikus-entzunezkoen ELKARTEA

Teknologiai egokituriko kutsu artistiko



itzalen lantegia

[josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Ordutik lan egiteko ezaugarriak asko aldatu badira ere, funtsa bera izaten jarraitzen du taldeak, sorkuntza artistikoa islatzea ikus-entzunezkoen bitartez, hain zuzen.

Juanma Bajo Ulloa, Cristobal Baigorri, Peio Varela edo Mauro Entrialgo dira beren ibilbidean barrena ikus-entzunezko elkartearen aritu diren zenbait izen ezagun. "S.A.M.A sortu zenean, super 8 eta 16 mm-ko zinema

S.A.M.A ('Sociedad Alavesa de Medios Audiovisuales') hizkien atzean ikus-entzunezkoen alde lan egiten duen elkarte dago. Egungo teknologia berriekin gauza daitezkeen bideoak, dokumentalak eta lantegien egitasmoan jarduten du elkarteak, baina bere hastapenak teknologiak hainbeste erraztasun ezagutzen ez zituen garaian kokatu behar dira, 60 hamarkadan hain zuzen.

lantzen zuen batez ere. Duela 40 urteko kontua izan zen hori, ostera garai berrietara egokitu behar izan dugu -gogora ekartzen du Yolanda Lopez de Heredia zuzendaritzako kideak-. Diputazioaren bitartez film laburren lehiaketa antolatzen zuen hastapenetan. San Antonio kalean kokatua zegoen. Garai horietan jende ezagun asko pasatzen zen bertatik".

Ikus-entzunezkoak ezagutza eta kulturaren lan tresnatzat aurkeztea izan du helburu betidanik S.A.M.A-k. Duela lau hamarkada

teknologiak oso bestelakoak izateaz gain, kamerak edo zinea lantzeko bitartekariak ez zeuden edozeinen eskura. Gaur ordea, edonork eros dezake ordenagailu bat eta horrekin trikimailuak egin. "Ekipo teknikoak erabat merketu direnez, gaur egun baliabide teknikoak eskuratzen dituen elkarte ez da garai batean zen bezain beharrezkoa, baina bai gogora ekartzeko ikus-entzunezkoen artea lan taldea dela", hausnartu du Lopez de Herediak.

SAMA-k 25 bazkide ditu egun eta Gasteizko Apaiztegiko eraikinean du egoitza. Hortxe aritzen



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073




bitxiak / zilarra / osagarriak
*zure gabonetako
opariak hemen*

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



& sozialeko sorkuntza elkarteak



fernando blanco eta rafael ortiz de lejarazu

dira, esaterako, Yolanda Lopez de Heredia eta Fernando Blanco, elkarteko kideak, buru-belarri lanean eta egitasmo desberdinak aurrera ateratzen. "Edozein elkartek bezala gureak ere estatutuak eta zuzendaritza taldea dauka (horren barruan, Yolanda bera, Rafael Ortiz de Lejarazu eta Blanca San Vicente dabilta) -azaldu du-. Gainontzeko kideak elkartearen partaide dira modu aktiboan. Jakinmina eta ezinegonak dituzten lagunak

dira, hezkuntza zikloak amaituta egitasmoak gauzatu nahi dituztenak eta baita sorkuntzan birziklatu nahi dutenak ere".

Egitasmoak eta egungo ekintzak

Iaz S.A.M.A., Gasteizko Udalak abian duen Gauekoak gazteentzako aisialdirako ekimenarekin elkarlanean hasi zen. "Zer eta nola erakutsi egin nahi dugunerako guneak sortu behar ditugu. Mahai lana egitea ez



yolanda lopez de heredia, elkarteko kidea

dago soberan, papera eta boligrafoarekin lan egiteak garrantzitsua izaten jarraitzen baitu. Isolaturiko sortzaileak ez dauka zentzu handirik", dio kideak. Ekimen honetaz gain, ikus-entzunezkoen elkarteak idazkeraren inguruko dokumentala gauzatzen ari da Gaubea eta Vaspuestako Lagunen Elkartearentzat; baita Itzalen lantegia, Julia Perez Aguilar artistarekin batera, edota Bakardadearen inguruko sorkuntza egitasmoa ere; eta azkenik, gertuko eginbeharren artean, txotxongiloak protagonista dituen film laburra grabatzen dihardute orain, 'Familia, gauza hori!, semea, alaba, senar-emazteak' izenekoa. "Espero dugu ahal den azkarren hiriko zine-aretoen batean estreinatu ahal izatea", nabarmendu du Lopez de Herediak.

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

eusko alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

UNAI GARTZIA SOLOZABAL. 'Agurain, 750 urte baino gehiago' hausnarketa-liburuaren egilea:

"Salvatierra Aguraingo historian ulertu behar dugu derrigorrez eta ez alderantziz"

Gaztelaniaztatze prozesua ekarri zuen Agurainera Alfontso X. Gaztelako erregeak 1256. urtean Arabako Lautadako herriari emandako hiribildu tituluak. Aurten ekintza hori gauzatu zenetik 750. urtemuga ospatu du Aguraingo Udalak. Unai Gartzia Solozabal (1978, Gasteiz) historialariak ordea, Arabera argitaletxearen eskutik, historiari begiratua emanetz hausnarketarako liburu idatzi du. Laster, euskaraz eta gaztelaniazko edizioetan, kaleratuko den 'Agurain, 750 urte baino gehiago' izenekoak.

[josune veleaz de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Agurainen kokatzen da liburuak, zergatik? Zertaz mintzatzen zara bertan?

Aurten, Alfontso X. Gaztelako erregeak hainbat herriri hiribildu titulua eman zienetik 750. urteurrena bete da (Kanpezu, Kontrasta, Tolosa, Segura, Ordizia...). Agurain herri horietako bat da. Eta bertako Udalak hainbat ekitaldi eta ospakizun antolatu ditu urteurrena ospatzeko. Hainbat aguraindarrek ez dute ospakizuna begi onez ikusi, herriaren

gaztelaniaztatzea goraipatzen dela uste baitute. Beharrezkoa suertatzen zen historian zehar Agurainek sekula galdu ez duen euskal nortasuna aldarrikatzea. Hortaz, ezkutuko historia argitara ekartzea al da liburu honen funtsa?

Ez. Hau ez da ikerketa liburu bat, ezta Aguraingo historia pausoz pauso aztertu nahi duen lan bat ere. Horretarako hainbat liburu kaleratu da orain arte. Lan honen helburua herriaren historiaren inguruko hausnarketarako gonbidapena luzatzea besterik ez da. Egia da orain 750 urte Alfontso X.ak Salvatierra sortu

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK



Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik
behar zaitu





zuela, baina Salvatierra Aguraingo historiaren barruan ulertu behar dugu derrigorrez eta ez alderantziz. Historian zehar euskal nortasuna ez du Agurainek sekula galdu eta horregatik herriaren historia Euskal Herriaren historiaren barruan ulertu behar.

Zein datu izan zaizkizu hausnarketarako baliagarriak, alegia, zein bibliografia motaz hornitzen da liburua?

Lana idazteko orduan orain arte Agurain eta Arabako historiak idatzi den bibliografiak baliatu naiz. Iturri horiek aztertuta kezagarria da nola atzoko eta egungo historiagile askok gure historiaren hainbat pasarte "ahaztu" egiten dituzten modu interesatuan. Euskarari eman zaion orain arteko garrantziaren adibidea da unibertsitateko ikerlari handien lanetan apenas presentziarik duela. Azken baieztapen honen inguruan, 2003an ateratako 'Historia de Alava' liburuan ia autore batek ere ez dio euskarari aipamenik egiten, modu inplizituan historian zehar gaztelaniaz bizi izan den Araba bat saltzen digute, errealitateak ordea, bestelako zerbait esaten digu. Aguraingo kasuan bertako euskarak utzitako lekukotasunik azpimagarrienak biltzen ditugu hizkuntza honek herri honetan izan duen presentzia bermatzeko.

Zein lekukotasunez ari zara, adibidez?

Larreako dorretxeko Lazarraga jaunaren eskuizkribuak edota Arabako Lautadatik pasatako bidaiariak utzitako idatziak, besteak beste.

Pasartez pasarte, liburuak ere gogora ekartzen du Salvatierra

baino lehen herriak Agurain izena zuela, ezta?

Bai hala da. Izen hura lehenengoz Donemilagako Agirian (1025) azaltzen da. Dokumentuak biltzen dituen bestelako herrien moduan Aguraingo izenak h hizkia dauka, garai horretako euskara arkaikoaren isla dena. Gutxienez Goiz Erdi Arotik herriak izan zuen izen hori, Alfontso X.ak aldatu zion 1256an gaztelerazko izen propagandistikoagatik: Villa de Salvatierra.

Hortaz, gaztelaniaztatzea Foruak eman osteko ondorio zuzena izan al zen?

Lagundu egin zuen. Alfontso X.ak arrazoi estrategiko-politikoei erantzunez sortu zuen Salvatierra, 50 urte lehenago konkistaturiko lurretan Gaztelaren egituraketa politiko-administratiboa ezarri eta zabaldu nahi zuelarik. Horretarako Gaztelaren izaera kultural eta linguistikoa ere zabaldu behar zituen, euskararen kalterako bazen ere.

Hala eta guztiz ere, eta pasarte haren poderioz euskarak atzera egin arren, egun Agurainek bere berezko izate euskaldunari eutsi dio.

Hala da, XIX mendean adibidez, eta udal dokumentu batzuek erakusten duten moduan, Agurainen oraindik bazen euskal elebarririk. XX. mendera heldu orduko egoera hau desagertu zen, baina 60. hamarkadatik aurrera berreskuratzen hasiko da. Hau lantzeke dagoen fenomeno da eta oztoporik oztopo, euskarak Agurainen eta beste hainbat herritan bizirik iraun du.

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea • 01005 GASTEIZ

Tfno./Faxu: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2

TFNO. 143883

GASTEIZ

Dalvez

argitarazleak

diáz de olano kalea, 22

tl: 652 77 65 09

fx: 945 24 52 69

info@dalvez.com

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztozile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

cd-a

'mari motots'

pirritx eta porrotx | 2006ko azaroa | www.katxiporreta.com

proiektu honetan adin guztietako musikariek, abeslariek eta idazleek hartu dute parte, eta "pila, pila, sekulako lagun-patata-tortilla osatu dugu". garate estudioetan hilabete eman dute grabaketa gauzatzen.

euskal herriko parke bateko zakarrontzi handi batean bizi diren mari motots neska bihurria eta haren ama protagonista dituen kd-a da honakoa. gure gizartean gaurkotasun erabatekoa duten errealitateak landu dituzte, "sudur-gorrian ikuspegi alai eta itxaropentsutik, betiere": 17 abestitan pobrezia, lurraren eta ingurumenaren gaiak jorratu dituzte, kolore askotariko doinuak eta mezuak bilduz.




liburua

'ezjakintasunak'

'ezjakintasunak' | gerardo markuleta | alberdania | 2006ko azaroa

gasteiz bizitoki duen gerardo markuletaren bosgarren poesia liburua dugu honakoa. izenburua barruko poema batetik dator. "liburu honetako poemek, neureak izateaz gain, neureak dirudite", adierazi zuen aurkezpenean. adierazteko modu "soilagoa" jorratu du egileak oraingoan; poesia figuratiboagoa, surrealismoa baztertuz, komunikatzeko garaian azken hau ez baitu emankor ikusten. orora, 54 poema, 5 ataletan banatuta: ezjakintasunak; barne kostaldeak; haigu; ziri-marrak; eta zirrikituak. arabako foru aldundiak antolatu Ernestina de Champourcin poesia sariketa irabazi zuen iaz markuleta 'ezjakintasunak' poema bildumarekin.



zinea

ezkaba

euskal herria, 2006 / zuz.: iñaki alforja / dokumentala. 70'
www.fuertesancristobal.com | <http://euskalherria.indymedia.org/>

zuzeneko protagonistei egindako elkarrizketa ugariren bidez, 1938ko maiatzaren 22an iruñean ezkabako gotorlekuan zeuden 795 presoren ihesaldi historikoa kontatzen du. irudi historikoak eta oraingoak txandakatuz, isilpean gordetako gertaera heroiko hura argitara atera eta kartzela hartan pairatu egoera izugarria salatzen du dokumentalak. hiruk bakarrik lortu zuten ihes egitea, 250 erail zituzten ihesaldian...



SEMAFOROKO IPUINA

[txabi arnal gil]

Arratsaldeko bostak dira. Berandu egin da, eta maistrak ezin izan digu arratsalderoko ipuina kontatu. Ni amorratzen jarri naiz, ipuin horren zain egoten naizelako arratsaldero. Eta gaur ipuinik gabe geratu naiz. Une horretan txirrina entzun da, eta korridorea oihu alaiez bete da.



Gain-begirada baten ondoren iluna ematen badu ere, kolore askotako liburu baten aurrean gaude, egunerokoa eta gaurkotasun handikoa, emozioak pizten eta zabaltzen dituenetakoa.

Oraingo honetan Manu Lopez-ek hiri giroan txertaturiko ipuin bat eskaintzen digu; erregai, ke usain, antxintxiketak, doblefilak eta estresa artean sorturiko ipuin goxo bat. Hala ere, umea, gure ipuinaren protagonista, ez da estresaz ezta istorioan pairatzen den bero itogarriaz ere ohartuko. Umeak ipuin bat nahi du, eskolan eman ez dioten ipuina, ipuin bat entzuteko, ipuin bat gozatzeko, ipuinentzat beti egoten baita leku eta une bat.

Bat-batean ipuin gabezia beteko dion laguna semaforo baten ondoan agertuko zaio. Semaforoa gorri dago eta amak autoa gelditu behar izan du. Etorkin bat hurbiltzen zaie egunkaria eta musuzapiak saltzen. Amak ez du ezer nahi, umeak, ordea, bai, eskolan zor dioten ipuina, hain zuzen. Eta etorkinak txanpon baten truke emango dio, txanpon bakar batean ipuin eksklusibo bat, musuzapi batean idatziriko ipuin bat, etorkinaren ipuina, semaforoaren ondoan egotearen arrazoia.

Eta semaforoa berde jartzen denerako ipuinlaria desagertzen da. Umeak begiradaz bilatuko du, baina ez du inon aurkituko●

Semaforoko Ipuina. Manu Lopez Gaseni-Jokin Mitxelena. Aizkorri, 2004



SINGAPOURRETIK GASTEIZERAKO TRENBIDAIA



“Trenak kulturak eta jendeak hobeto ulertzeko gaitasuna eman digu”

Jaizki Fontaneda eta Susana Rodriguez bikote gasteiztarrak euren bizitzako bidaiari ekin dio. Izan ere, Singapourren bi urte luzez bizi ostean, bertatik Gasteiza itzultzea erabaki dute. Garraiabidea, trena. Poliki-poliki, presarik gabe, eta munduko bi hiri hauen artean dauden lurraldeak ezagutuz. Hauxe da euren bidaiaren kronika.

[saioa fdz de arangiz]

2006ko maiatzak 16. Egun honetan Jaizki eta Susana bikote gasteiztarrak motxila bizkarrean hartu eta etxerako bidea hartu zuen. Orain dela bi urte Berlinetik (bertan ere hiru urtez bizi izan ziren) Asiako Singapour hirira joan ziren bizitzera, Susanari bertan lanpostua eskaini baitzioten. Etxera bueltatzeko garaia heldu dela sentitu zuten, baina oraingoan, beste batzuetan ez bezala, patxadaz hartuko dute buelta. Izan ere, trena da aukeratu duten garraiabidea. Norabidea, Singapour eta Gasteiz hirien artean dauden herrialdeak, kulturak, jendeak, hain justu.

“Betidanik izugarri txunditu nau hegazkin bidaia luzeetan erdian, ikusi gabe geratzen den lurralde zabalak. Halako bidaia bat

egitean, hegazkinaren leihotik begiratzen nengoela, Pakistan eta Afganistan banatzen duen basarmotua ikusi eta erabat liluraturik geratu nintzen paisaia harekin. Hain gertu eta aldi berean hain urrun nengoen. Eta horrela bururatu zitzaidan Gasteizerako gure itzulera lurretik egitea, aldentzen gaituen hori guztia disfrutatuz, hau da, jendea, kultura, paisaiak, janaria, hizkuntza”, azaltzen du Jaizkik, lanbidez argazkilaria dena. Susanari ideia bikaina iruditu zitzaion eta informazio bila hasi ziren. Hasiera batean Txinan denboraldi bat igarotzea eta gero Transiberianoa hartu Moskura joateko eta bertatik Gasteiza hegazkinez etortzea pentsatu zuten. Baina informazio bilaketa horretan, Singapour eta Gasteiz, Kanbodiako pare bat zatitan izan ezik, trenbidez lotuta daudela konturatu ziren eta euren hasierako





ibilbidea moldatu zuten.

Gauzak horrela, hegazkinez 16 orduko itzulera bidaia izango zena, 7 hileko tren bidaia bilakatu zen, eta aldi berean, munduko alde horretako txoko guztiez astiro-astiro gozatzeko parada ere.

Bikotearen esanetan, "hegazkinez egiten diren bidaia luzeetan, tartean geratzen diren herrialdeak soilik mapetan dauden izen hutsak dira, munduaren tamainaren erreferentziak galtzen ditugu erabat, eta beraz, ez gara bisitatzen dugun herrialdearen kultura ulertzeko gai. Trenarekin, berriz, pixkanaka bisitatzen ditugu herriak, euren biztanleak, eta eurekin trukatzeko ditugu begiradak, elkarrizketak, esperientziak. Horrela, kultura ezberdinak eta hauen arteko desberdintasunak ulertzeko gaitasuna irabazten dugu, baita gizakia, munduak eta bizitza hobeto ulertzeko ere".

Ibilbidea

Singapourretik abiatuz, Malasia, Tailandia, Kanbodia, Vietnam, Txina, Mongolia, Errusia, Ukraina, Errumania, Hungaria, Austria, Txekia, Alemania, Belgika eta Frantzia bisitatuko dituzte, azken geltokia Gasteiz izaki. Hondartza eta mendia, hiriak eta herriak, batzuetan jendez gainezka, besté askotan bakartiak, gastronomia berriak, usadio, kultura eta erlijio desberdinak. Denetarik ikusi dute euren bidaian Jaizkik eta Susanak, baina batez ere, bertakoekin mantentzen duten harremana atsegin dute.

Ugari eta anitzak dira, beraz, ezagututako lekuak, hala ere, hainbat lekuk sentimendu bereziak sorrarazi dituzte bikotearen bihotzetan. Jaizkik esan bezala, "niretzat orain arte tokirik minena Litang izan da, Sichuan-en dagoen Tibet-en zati bat, alegia. Bertan gelditzeko gogo izugarria eduki nuen, bertakoa sentitzeko. Zaila da azaltzea, baina hainbeste toki izugarri polit ikusi eta gero hark izan zuen niregan eragin handien". Bestetik, Susanaren kasuan,

Mongoliak erabat liluraturik utzi zuen gasteiztarra eta bertan bizi nahiko lukeela azaltzen du. Nolanahi ere, gainontzeko leku guztiek zerbait berezia dutela aitortzen dute, batez ere Malasiak. "Oso toki ederra da eta jendea Asia hegoaldeko jatorrena da", diote.

Bikoteak bere esperientzia partekatu nahi izan du hasieratik eta hori dela bide, 'Pasajeros al tren' izeneko blog-a martxan jarri zuten. Bertan euren egunerokoaren berri ematen dute, non bisitatu lekuetako bizipenak, sentazioak, usteak eta hausnarketak kontatzen dituzten. Testuak laguntzeko, eurek egindako argazki ikaragarriak ikusteko abagunea ere badago, blogaren irakurlea ere lurralde urrun horietara daramatzatenak.

Sentsazioak

Hala ere, 7 hilabeteko bidaia egiteak nekatzen duela aitortzen du bikoteak. "Toki batetik bestera ibiltzea nekagarria da oso, baita egunero argazkiak atera beharra ere. Baina nekatuta sentitzen garen bakoitzean edo tokien arteko ñabardurak sentitzeko gai ez garenean, esfortzu bat egiten dugu, bidaia hau egiteko aukera ez baita erraza birritan izatea, hortaz, aprobeztatu behar da mementoa. Horrek ez du esan nahi azkar joan behar garenik, baizik eta arreta handiz begiratu eta sentitu behar dugula, bidaiatzea ere monotonoa bihurtu daitekeelako", azaldu du Jaizkik.

Abenduaren 23a inguruan bidaiaren amaiera izango da, bikoteak Gabonak familiarekin igarotzeko asmoa baitu. Bidaia amaituko da orduan, baina motxilan ehundaka argazki izugarri geratuko dira, baita bikotearentzat ahaztezinak izango diren bizipen ugari ere.

JAIZKI ETA SUSANAREN BIDAIA JARRAITZEKO:
[HTTP://BLOGS.ELCORREODIGITAL.COM/PASAJEROS](http://blogs.elcorreodigital.com/pasajeros)



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



HEGOALDE
Euskalategia



Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**ERROTA
HORTZ KLINIKA**

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

ERREZETA

TALOA

www.taloak.com

www.euskaltalo.com

zer da taloa?

Mendeetan zehar taloa izan da gure baserrietako oinarrizko elikagaia. Gure amonek, gizaldiz gizaldi, etxeko sukaldeko suntuondan prestatu dute. Jaki xumea da, eta horretxek ematen dio hain balio handia.

Hona hemen taloaren adiera formalak: arto-irinarekin, urarekin eta gatzarekin egindako opila da; baserrietako sukalde ekonomikoan erretzen da eta esnearekin, txistorrarekin, hirugiharrekin, txokolatearekin edota gatzarekin jaten da.

Alabaina, euskaldunontzat badu Taloak esanahi zabalagorik; alegia, arbasoengandik jaso dugun jakia baino zeozer gehiago da. Izan ere, Taloa gure eguneroko kulturaren parte da, eta mendeetako historiaren gainetik, gure herrian sustraiturik dago.

Horretaz gainera, Taloak tradizioa adierazten du, natura adierazten du, eskulana eta sua ere bai; eta, guztien gainetik, zaporea erakusten du.

nola egin betiko taloa

Atal honetan azalduko dizugu nola egiten den Taloa eskuz. Pausoz pauso jasoko duzu baserrietan mendez mende nola egiten den.

Lehenbizi taloa egiteko tresna egokia behar dugu: oraska edo oramahaia. Oraska egurrezko ontzia da, piramide-entzor itzuliaren itxurakoa, eta oreka egiteko erabiliko dugu.

Oraskan ondoko gaiok jarriko ditugu: arto-irina, ur beroa eta gatza.

Nahasketa oratu eta pilota txikiak egingen ditugu.

Pilotak ere ongi oratuko ditugu eta palan zabaldu egingen ditugu, opil itxura emateko. Zabalduetakoan oreka fina eta tinkoa izanen dugu.

Taloak izateko, opilok bi eratan erre ditzakegu; bata, ekonomikaren txapa beroan erreta, eta bestea, berriz, talo-burnian erreta. (*)

Taloak erre direnean, edozerekin bete ditzakegu: txistorrarekin, hirugiharrekin, gatzarekin, txokolatearekin edo jan behar duenak nahi duenarekin.

[(*)oharra: edo zartaginean, egun]



Elizmendi ermita eta bere hilarriak

Aurrekoan Kontrasta-Aranaren (Araba) sorreraz eta Elizmendirekin zuen loturaz aritu ginen. Gogora dezagun 1203 eta 1255 urteetako Iratxeko dohaintza-agiri batzuetan *Santa Maria de Elizmendi* monastegia bere kontzeju eta lurrekin agertzen dela; gaur egun, ordea, herriaren mutur batean ermita bat baino ez dugu topatuko, baina ez nolanahikoa. Leku honen magikotasunak bigarren artikulu bat merezi duela uste dut, eta bisita bat ere bai, jakina!

Aukeraturako lekua ez da kasualitatea, defentsa naturala eta ikuspegi ederra duen muino batean kokatua eta antzinatik erabili izan den bide erromatar baten ondoan. Eliza izan baino lehen antzinako heriotza-ohituren eta kultuen gune sinbolikoa izan zela pentsatzeko arrazoi bat baino gehiago daude. Adibidez, 1731n dokumentatua dago bertan heriotza-izaera zuen Kofradia bat zegoela, eta zenbait egun berezitan bertakoek zein bailarakoek erregu-otoitzak eta kultuak egiten zituzten, besteen artean, otsoen ehizean laguntzeko. Bestelako erregute eta prozesioak ere ez dira falta izan, gaur gehienak galdu badira arren. Erdi Aroko hilobiak ere topatu dira, baina bere antzinakotasunaren froga bere paretetan aurkitzen dugu. Guztira, erromatarren garaiko 23 hilarriren aztarna. Batzuk oraindik ondo antzematen dira, beste batzuk denboraren poderioz desitxuratu badira ere. Ez da kasu bakarra, honelako hilarriak Arabako beste hainbat elizatan topa daitezke, batez ere ekialdean: Durruma Donemiliagako elizan, Uribarri Aranako Andra Mari ermitan, Angostinako San Bartolome basilizan, edo ondoko Gastiaingo San Sebastian ermitan... baina denen artean Kontrastan nabarmentzen da bere hilarri kopurugatik. Estela hauetan gainera, laburbiltzen dira gure lurraldean agertu ohi diren sinbologia nagusiak: arkuak, ilargiak, animaliak, giza irudiak hainbat tresnarekin edo mahatsondo eta antzeko landare-apaingarriak. Dudarik gabe, orain dela ia hogeit hamar urteko arbasoen sinesmenak eta



erradiodun eta eguzki itxurako diskoa duen hilarri ederra elizmendiko horma batean dagoena




kontrastako krutziadana parajearen topatutako estela

heriotza-kultuak ulertzeko lagungarriak.

Baina sinbolo hauekin batera hilarri hauetan latinez idatzitako inskripzio edo testu laburrak ere ikus ditzakegu; testu hauek epitafioa jasotzen dute, hildakoaren izena, adina eta zenbaitetan inskripzioa eginarazi duen pertsonaren izena eta bien arteko lotura (aita-seme/alaba...). Agertutako izen gehienak jatorri indoeuroparra duten izen indigenak dira: hauetako batzuk, *Ambatus*, *Segontius*, errepikatzen dira inguruko beste esteletan. *Araica* *Arai(us)*-en alaba errepikatzen den bezala ondoko Larraonan eta Gastiainen; gainera azken bi hauen jatorria euskararekin ere lotu daiteke.

Ez dira, hala eta guztiz ere, Kontrastan dauden estela bakarrak. Gutxienez disko-itxurako hiru estela ere badira, ez dakigu Erdi Arokoak edo berriagoak diren. Era honetako hilarriak topa daitezke Penintsula eta Europako beste lurralde batzuetan, baina harrigarria da Euskal Herrian dagoen kopurua. Oraindik Iparraldean edo Nafarroako hainbat kanposantutan disko-itxurako estela hauek ikus ditzakegu. Araban badira han-hemenka zenbait ale, batzuk Arkeologia Museoa eta beste batzuk barreiatuta hainbat herritan. Kontrasta eta Uribarri artean *Txangorreka* parajearen ale bat dugu eta beste biak aipatutako museoan. Argazkikoa *Krutziadana* (*krutzeada*: gurutzea dagoen lekua; bitxia da Arana eta Ameskoa bailaretan aditza daramaten toponimoen erabilera) parajearen zegoen botata eta puskatuta eta Diputaziori eman zioten 1950 urtean. Bitxia da Gereñuk herrian jasotako hilarriaren ezarpenaren zergatia azaltzen duen istorioa. Honen arabera, San Juanetan ospatzen ziren jaietara Larraonako gazte batzuk joan eta istiluak sorrarazi zituzten. Ondorioz Kontrastakoak oldartu zitzaizkien, bat *Krutziadana* akatuz, beste bat *Garratamon* eta bestea Larraonako muga. Heriotza hauek gogoratuz gurutzedun hilarri bana jarri omen zituzten; jaiak irailera aldatzearekin batera. Egia ote? ●



HISTORIAZUTABEA

ARABAKO HISTORIAZ HARATAGO

[erlantz urtasun antzano] historialaria

Gurea pasa da, gure garaia agortu da, bertze mundu bat nagusitzen ari zaigu. Hots, bizi dugun egungo Araba, historia bertzerik ez da.

Bai, badakit, honetaz hitzik ez komunikabideetan. Ez baita komeni. Kristorena, aipaezina. Era berean, azken urteotan ekonomikoki biziki aberastu garenez, zergatik kezkatzea? Zertarako? Halere, eta Galileok inkisizioaren aitzinean erran omen zuenez, "mogitzen da".

Teknologia berriak, modernoak, erabil ditzagun. Erraza baino errazagoa, www.vitoria-gasteiz.org bila dezagun interneten. Bertan, "euskara" aukeratu, gero "hiria" eta, hondarrean, "ikerlan eta estatistikak". Hor "2005ko urtekari" izenburupean dagoen "biztanleria" sakatu. "pdf" artxiboa agertuko da. 4. orrialdea bilatu: 2005eko datuak dira.

Eta, hemen dago koska: 25-29 urte

bitartekoak 20.336 lagun dira. 10-14 urte artekoak, berriz, 8.870 lagun. Ondorioa ageri: pare bat belaunalditan, urte gutigitan, Gasteizko populazioa oraingoaren erdia izanen da.

Hori, noski, ez da inoiz gertatuko... Hegoamerika, Afrika, Asia eta Ekialdeko Europatik milaka eta milaka pertsona etorriko baita, egun nabaritzen dugun aldaketa kosmopolitaren uholdeak hogeit bat urtetan hiria itotzeko. Bakoitzak bere gustuko taberna, denda, giro, auzoa izanen du. Eta hau aldatzerik ez dago! Bon, bai, bada bide bat, inork jorratuko ez duena: hiru ume baino gehiagoko familiak osatzea.

Arabako Iruñan aspaldiko euskal hitzak agertu dira. Historiak, nik uste, baliagarria izan behar du, praktikoa, guk Arabako egoera zertan den uler dezagun, baita geroa irabaz dezagun ere. Euskaldunok bat egin behar dugu. Horrela, eta Arabako Historiaz haratago, etorkin berri horiek gure eginen ditugu... Edo gureak egin du.



"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (IX)

Urte luzetako "Oquendo" udalerrria "Okondo" dugu egun. Bada, jada XIX. mendean "ocondo" gisa agertzen zen, baita "ucondo" ere mende bereko agiri batean. Enfin, nahikoa gardena dirudiela ezin ukatu.

Bitxiagoa gero herri basamortu bilakatu zen "Oquerruri". Izan ere, horrela agertzen baitzen XVIII. mendeko paper zaharretan, baita, antza, XV. mendekoetan ere. 1025. urtean, kar kar, 2006ko euskaldun batek ziria sartu ziela ematen du, orduko eskribauak "Okerhuri" idatzi baitzuen, hala, "k" eta "h" z apaindurik!

Baina, ogia egin nahi izanez gero, hoberena "Okina" herrirat hurbiltzea da. Modu berean isuri zuten XI. mendean, jada 1257an "Oquia" izateko. Bon, nahikoa logikoa euskaldunon artean, fonetikoki alegia, "n" hori erortzea. 1694an, baina, "Ocina" bihurtu zuten, badakizue... "ukaldea".

txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@gm.es

ezker independentea



EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA
BEHINGOZ!

ALDE
HEMENDIK!



aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631

Euskal Herriko
II. Ikus-entzunezkoen
Rallia




Aiaraldean, 2006ko
abenduaren 16an
Dinarriak: www.topagunea.org/Rallia

izen-ematea:

azarOaren 27ra arte

Antolatzaileak:



Babesleak:



INSTITUTO
FORAL DE LA JUVENUD



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Giza Eskubideak, Enplegarik eta Gizartearen Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inclusión Social



XI. URTEURRENA

Azaroak 28, asteartea, 20:30ean:

musika saioa:

EORANN

(pop, post-rock, noise) Bilbotik
GEU elkarteak antolatuta



HAMAIIKA IKUSTEKO JAIO ETA PARRALEN HAINBAT SAIO

Azaroak 30, osteguna, 21:30ean:

bertso saioa:

UNAI ITURRIAGA

JON MAIA

IGOR ELORTZA

Gai-jartzailea: JOSU GOIKOETXEA

Abenduak 4, astelehena, 21:30ean:

bakarrizketa-umore saioa:

'EL TXOU DE PATXI'

Gorka Aginagalde

Abenduak 5, asteartea, 20:00etatik aurrera:
XI. urteurren-festa saioa:

20:00etan: zirko saioa & afari-merienda-lunch
CIRCOSIS company: 'Rueditas y estorbin'

23:00etatik aurrera: disko-jartzaile saioa

SILUM SOUNDZ

videoprojectiles: **ISdeO**

pinchadiscos: **Cubo & Kar Dj Shola**



PARRAL
TABERNA
JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ TL. 945 27 68 33